

aurki bidea

- 4 Sarrera
- 5 Gutxieneko informatika
- 7 Klik
- 9 Web orria
- 11 Power Point
- 13 "SPC" hizkuntza
- 15 Ipuinak bizi-bizian
- 17 Alexander teknika
- 19 Plastika adierazpena
- 21 Euskal dantzak
- 23 Antzerki clown-a
- 25 Euskaraz jolasten
- 27 Jolas kooperatiboak
- 29 Psikomotrizitatea
- 31 Haurrentzako masajea
- 33 Musika hezkuntzaren hastapenak herri kulturetan
- 35 Gustura irakurtzera
- 39 Literatur txokoa: Gabriel Aresti, Ramon Saizarbitoria eta Xabier Montoia
- 43 Idazkera "txarra"? Ez, eskerrik asko
- 45 Hizkuntzaren trebaketa
- 47 Heriotza heziketan
- 51 Matematikaren historia
- 53 Gogo erabilketa
- 55 Historiaren txokoa
- 57 Artearen txokoa: Oteitza
- 61 Baratze ekologikoa
- 63 Irakaslearen rol aldaketa
- 65 Euskal kultura tradizionala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskararen Normalkuntzako
Zuzendaritza Nagusia



Donostiako
Udala

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solaina. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08
Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; www.hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 **Koordinatzailea:** Joxe Mari Auzmendi **Erredakzio burua:** Airnha Azpiroz **Erredakzio batzordea:** Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. **Aholkulariak:** Inanol Aginre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gobi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sudupe. **Diseinua:** TRAM@Grafik maketazio, **aurreinpresioa:** hikhasi. **Inprimategia:** ANTZA S.A.L. **Azaleko irudia:** hikhasi Udako Topaketak. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/VI/23.** Kopurua: 5.000 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

Sanr era

Aurtengo uda ere **IV. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoe**kin estreinatzeko moduan izango gara. Irakaslearen aulkia utzi eta ikasle lanetan jartzeko parada iritsi da. Hiru egunetan zehar ikasi egingo dugu, aldameneko ikaskide berria ezagutu, lehendik ezaguna denarekin elkartu... Gozatzeko egunak izatea nahi genuke, eta nola ez, euskaraz.

Kolore guztietako ikastaroak izango dira aukeran. Teknologia Berriek erakartzen zaituztela? Bada, Informatika Fakultatean ordenagailuei eta programa informatikoei adarretatik heltzeko aukera izango da. Gorputzak mugimendua eskatzen dizula? Hor daude euskal dantzak eta jolasak izerdia botatzeko. Antzerkiak ere, gehiegi izerditu gabe, gorputza mugitzeko aukera emanen du, eta plastikako saioak hainbat trebezia lantzeko bidea irekitzen du. Atsedena nahi duenarentzat, berriz, masajeak eta Alexander teknikak eskaintzen dituzten ariketak daude. Gelara sartzeko nagikeriaz dagoenarentzat ere badago irtenbidea, baratze ekologikoaren ikastaroa Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza eskolan egingo baita. Literatura duzula gustuko? Bada, ohiko txokoan hiru idazleren lanetan sakontzeko eta gozatzeko gonbitea egiten dizugu. Nahiago duzuna ipuinak entzutea? Bada, hori ere egina dago. Agian zure afizioa artea izango da, edo matematikak, historiak, psikologiak edota heriotzak piztuko du zure jakin-mina. Kasu horretan arlo horietan sakontzeko ikastaro espezifikokoak zuri bideratuta daude. Aurten, gainera, bi txoko berri sortu ditugu: artearen eta historiarena. Artearen txokoa Oteitzari buruzkoa izango da eta historiaren txokoak arkeologiara eta historiaurrera egingo du salto.

Talde batean zein bestean parte hartzen duzuen guztion artean 500 lagun inguru izango gara, eta ikastaroetako emaileen eta antolatzaileon artean beste 60 bat. Gidaritza nagusia **hik hasiren**

gain egon arren, EHUko Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin antolatzen ditugu topaketok. Azken finean, beste behin ere, denon artean osatuko dugu euskal irakaskuntzan erreferentzia bilakatu den topagune hau.

Bide batez, **IV. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoe**tako aurkezpen ekitaldiko hitzaldia aipatu nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera antolatu dugun ekitaldi honetako hitzaldiaren izenburua "*Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian*" da eta EHUko Bilboko eta Gasteizko Irakasle Eskolako Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urraza irakasleek aurkeztuko dute. Euskal Herriko ikastetxeetan erabili izan diren eta erabiltzen diren testu liburuak aztertu dituzte ikerketa zabal baten barruan eta berauetan Euskal Herriari buruz ematen den ikuspegia ikertu dute. Bakoitza arlo zehatzetara mugatu da (kultura, zientzia, teknologia, lanbideak...) eta tesi banatan bildu dituzte ikerketaren nondik norakoak. Lehen bi tesiak eginak eta aurkeztuak daude, eta azkenekoa falta da. Zorroztasun eta objektibotasun handiz egindako lanak izaki, atera dituzten ondorioek arreta berezia merezi dute. Eta batez ere, euskal irakaskuntzaren alde lanean ari garenon aldetik. Izan ere, testu liburuei egun duten garrantzia aitortzen baldin badiegu, ezin uka eragin handia dutela ikasleek jasotzen dutenarengan. Beraz, euskal curriculumaren eta euskal irakaskuntzaren joraketan oso garrantzitsua da testu liburuek jokatzen duten papera eta markatzen duten norabidea. Horretaz hausnartzeko eta eman beharreko urratsak bideratzeko lagungarri izanen da irakasle hauek egin duten lana eta emango diguten azalpena.

Indartsu, oparo, seriotasunez, umorez, gogoz eta, nola ez, euskaraz datoz IV. edizioko topaketak, denon artean aberastu eta osatuko ditugun topaketak.

Gutxieneko informatika

Lekua: **Informatika Fakultatea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:30 Dokumentazioaren banaketa	9:00	9:00
9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:		
* Edukiak - Word, Internet Explorer, on-line posta elektronikoa - Irudien trataera, WordArt, taulak...		
* Prozesuak - Testuak idatzi, kopiatu/itsatsi, Interneten informazioa bilatu, gure posta kontu bat ireki, mezuak bidali, testuak kopiatu Internetetik, Interneteko irudiak gure dokumentuetan erabili, dokumentuak diskete batean gorde...		
* Proiektuak - Nire izenaren txartela. Olerki karrera. Gelako kartela. Ipuinen bilduma. Inauterietako kartela. Interneteko filibusteroa. Europako irudi albuma. Posta helbidea 5 minututan. Lagun ezkutua. Txat-eo basatia. Marrazki lehiaketa. Klaseko helbideen zerrenda. Erosketa zerrenda. Zer esaten du panpinak?		
* Mikel FERNANDEZ . Bianako Erentzun ikastolako irakaslea.		
14:00 BAZKARIA		



Gutxieneko informatika ez dakigunontzat

Nire ikasleek nik baino gehiago dakite gehiago esan nahi ez duten irakasleentzat

Marea gora dator. Eta toaila kentzen ez badugu, busti egingo zaigu. Ez dago beste ezer egiterik. Marea igotzen den bezala, teknologia berriak ere ailegatu zaizkigu irakaskuntza mundura, baina ez hala-hola, olatu erraldoi bat lurralde idor batera ailegaten den bezala baizik. Eta ur hori ongi kanalizatu beharra dago, bestela, ito egingo gara. Nola menperatu, ordea, hain beharrezko, baina, aldi berean, hain itogarri den uholde hori?

Ito edo iraun, hori da erronka. Irakaskuntza munduan gaudenok aurre egin beharreko erronka. Eta, argi esan dezagun: gaudituz dezagun erronka da. Ez dezagun kontrakorik pentsatu. Ez gaitetzen "nik hortaz ezer ez dakit" horren atzean ezkatutu eta ikas dezagun igeri egiten.

Zalantzarik gabe, esan beharreko lehenengo gauza zera da: ez dugula informatikako adituak izan behar teknologia berriak gure eguneroko laneko baliabide bilakatzeko. Inork ez du planteatzen pilotu profesionala izan behar denik autoa gidatu ahal izateko, edo inork pentsatzen al du eguneroko bazkariak edo afariak prestatzeko "Arzak" abizena izan behar dugunik? Horixe ezetz, helburua ez da teknologia berrietan aditua izatea, bai ordea, hauek eskaintzen dizkiguten aukerak ezaizte gure ikastetxeetan aplikatzeko, eta hori bai, ditugun beharrek bultzatzen gaituzten neurrian, gainera.

Beldurra. Hori dugu beste oztopo bat. Baina zeren beldur izan behar dugu? Ikasiko ez ote dugun beldur? Ez dut sinesten irakasleok zer ikastearen beldur garenik,



Mikel FERNANDEZ
Bianako Erentzun ikastolako irakaslea

ikasten laguntzen ematen dugu bizitza eta. Ez, ez gara horren beldur. Agian... ordenagailuak gu ordezkatzeko gaituen beldur? Gu erditik kendu eta berak egingo al du gure lana? Txistea dirudi horrek, ezta? Horixe. Ederki dakigu ez dagoela irakaslea ordezkatzetik. Helburuak eskuratzeko bidean beste baliabide bat gehiago baino ez da ordenagailua. Hori baino ez. Uste dut gure gizartean beste baliabide batzuk ageri diren bezala (liburuak,

ikus-entzunezkoak), ordenagailuak ere presente egon behar duela gure ikastetxeetan, gure geletan eta gure eskoletan. Zergatik ukatu egungo gizartean hain ageri, hain lagungarri eta hain osagarri den tresna?

Beno bada... beldurra uxatu dugu jada. Hurrengo urratsa zalantzak argitzea da. Hona hemen nagusia: nola erabiliko dugu informatikan aditua izan gabe? Ikastaroaren metodologia "learning by doing" izango da, hots, eginez ikasiko dugu. Proiektu batzuk burutuko ditugu eta hauek ondoren azaltzen diren ezaugarriak izango dituzte:

- Ondoren, norberaren gelan aplikagarriak izango dira.

- "Zertarako" galderari erantzungo diote beti.

- Informatikaz gain, beste arlo batzuk ikasteko ere baliagarriak izango dira: hizkuntzak, arte heziketa, ingurunea...

Ez dago, beraz, zalantzarik, Hik Hasiko udako topaketetan elkar ikusiko dugu. Gogoratu irakaskuntzan informatika erabil daitekeela aditu izan gabe.



Klik

Lekua: **Informatika Fakultatea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>Jarraian:</p> <ul style="list-style-type: none">- Klik sarean http://www.xtec.es/recursos/clic/esp/index.htm: programa batzuk jaitsi eta instalatuko dira, programa batzuk disko gogorretik irekiz, bi bidetatik, "word" bezala.- Siera CDaren aurkezpena egin eta aplikazio batzuk irekiko dira.- Hainbat kontzeptuak argituko dira: artxibo motak (bmp, gif, jpg-mid, wav-avi, fli) (disk gogor.)- Buruhausgarriak, sekuentziak, testuak, memory, letra zopa arrunta, eskuineko leihoa, gurutzegrama fitxeroa ireki [demo] menucrw.pac- Eskanerraren erabilpena, kolorea, erresoluzioa, irudi fitxategi mota, irudia handitu-txikitu, irudia moztu, testua sartu irudian... (ariketa praktikokoak: gelakoen aurpegiak...). <p>* Fultxo CRESPO. Bianako Erentzun ikastolako irakaslea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none">- Elkarketa arruntak, konplexuak, idatzizko erantzuna, araketa modalitatea, identifikazio elkarketak BAI-EZ, "arit.dll" modulua (elkarketak).- Irudiak bilatu Interneten, soinu grabatzailea, soinu fitxategien formatua, argibide pantaila l. Ekin1 {ekin1.ass}, (ariketa praktikoa: ipuin bati soinu ipini). <p>* Fultxo CRESPO.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none">- Testu aktibitateak: hutsuneak bete, testua osatu (letrak identifikatu, hitzak identifikatu hitzak ordenatu, parrafoak ordenatu), klik pakete arruntak-klik pakete trinkoak, klik pak-kateamenduak, trinkotu-des-trinkotu PAC†PCC†PAC... balorzioa. <p>* Fultxo CRESPO.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Klik

Lau urteko haur bat tapiz baten gainean dago lankideen izenak dagozkien argazkiekin parekatzen...

Bost urteko ikasle bat irakasleak margotu dituen kartoi mehezko fitzak honan zintzilikatzen ari da belkroz baliatuz

Lehenengo mailan, irakaslearen pazientzia frogatzeko, ikasle batek txitean-pitean galdu duen paperezko hitza lurrean bilatzen du

Bigarren mailan, irakasleak, eragiketak idatzi eta fotokopiatu ondoren, banan-banan zuzendu behar ditu...

Hirugarren mailan, fotokopiaz baliatuz, neska-mutilak ulemena lantzen ari dira esaldi batzuekin... Betiko lana, gogorra bezain astuna irakasleentzat... betiko aspenaldia ikasleentzat. Atzo goizeko kontak.

Eta lan hori guztia informatika gelara eramaten badugu? Litekeena al da? Galdetzea ere! Haurrak hara joateko irrikaz daude, eta orain giltza bat badaukagu: Klik programa. Tresna hori azaldutako lan neketsua laket erakargarri bihurtzeko gai den erreminta da, hain zuzen.

Informatika gelan klaseko haur guztiek beren argazkiak ordenagailuaren pantailan ikusi eta beren izenekin lotzen dituzte. Eta asmatzen duten bakoitzean marrazki bizidun bat agertzen da algaraka.

Pantailan agertzen diren kolorezko hitzak ez dira galtzen... eta amen batean haurrak dagokion lekuan kokatzen ditu esaldia osatzen duten hitzak... bere errit-



Fultxo CRESPO

Bianako Erentzun ikastolako irakaslea

moan, jo eta ke, atsedetik hartu gabe.

Irakasleak ez ditu eragiketak zuzendu behar. Ikasle bakoitzak egin duen ariketaren txostena klik batekin agertzen da.

Klik programaren bidez hainbat ariketa egin daiteke: hitzak erlazionatu, egia ala gezurra, hitzen artean soberan dagoena baztertu, testuak osatu, hutsuneak bete, puzzleak, serieak, sekuentziak, eragiketak, testuak, ingurunekeo liburuan agertzen den edozein fitxa, musikan erritmoa lantzeko, edozein ikasgaitan agertzen diren ariketak... Edozein mailatan eta edozein arlotan ordenagailuaren disko gogorrean hamaika aplikazio eduki ditzakegu erabiltzeko prest.

Une honetan Klik programak 100 jarduera baino gehiago ditu euskaraz, alor guztietan. Eta hori hasiera baino ez da. Astero agertzen dira jarduera berriak. Denetarik dago eta jarduera guztiak mundu osoko irakasleok egindakoak direla azpimarratu behar da: Alemania, Hego

Amerika, Erresuma Batua, Portugal, Espainia, Galizia eta Euskal Herria, besteak beste.

Hori gutxi balitz, atera berria den JKlik (Klik Java) aplikazio osagarriarekin eta Internetez baliatuz ikasleek Klik programako jarduera batekin "on-line" jolas-teko aukera izango dute, hots, urruneko ordenagailu batetik beharrezkoak diren fitxategiak automatikoki kargatuz. Horrez gain, edozein sistema eragilek (Javarekin bateragarria bada, noski) Klik aplikazioak kargatu ahal izango ditu.

Lehenengo eta behin, ez dut ahaztu nahi Klik programak ematen digun abantailarik garrantzitsuenak: ekintza berri bat sortzen dugunean gure gelako haurren ezaugarriari egokitzeko aukera dugu, hots, geure ikasleen beharren arabera sor ditzakegu aplikazio zehatzak. Klik programari esker, helburuak, ariketa mota, pausoak, xehetasunak, aurrerapenak... irakasleak aukeratzen ditu.

Mundu zoragarri honetan murgiltzeko informatika ezaguera sakonak behar al ditugu? Ez, oinarrizkoak baino ez ditugu behar. Betiko Windows-a, eta kito.

Klik erremintaz baliatuz jarduera berriak prestatzea edo eginik daudenak egokitzea lan gogorra dela esan beharrik ez dago. Baina, ez al da nekezagoa eta izugarritzko lana 25 esaldi idaztea, plastifikatzea, moztea eta eskutitzaren azaletan sartzea ikasleek ariketa berehala egingo dutela jakinik?

Klik, zalantzarik gabe, ezagutu ondoren zure lankide handienetarikoa izango da. Eutsi goiari!

Web orria

Lekua: **Informatika Fakultatea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia		
Jarraian:	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none">- Word testu prozesatzaileak WEBerako dituen funtzioak aztertu.- Irudien oinarritzko trataera.- HTML mintzairaren oinarriak.- Web editore baten oinarritzko funtzioak ikasi (DreamWeaver).- Webgune baten eraketa: taulak, markoak, irudiak, loturak...- Artxiboak Interneteko zerbitzari batean eskegi.		
* Lukas RODRIGUEZ . IKTko programaren teknikaria.		
14:00 BAZKARIA		



Web orrien diseinua



Hiru eguneko ikastaro trinko honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Hiru egun trinkoko ikastaro honetan Internet munduan murgildu behar dugu, edo zehatzago esateko, Internet edo Intraneteko edukien argitarapenean.

Apunteak, ikastetxeetako web orriak... izango dira ardaztat hartuko ditugun adibideak, eta helburua web orrien eraketaren oinarriak ikastea izango da.

Honako hauek izango dira jorratuko ditugun edukiak:

Word-ek ematen dizkigun ahalbideak:

Microsoft etxeko Word testu prozesatzailerlea da, zalantzarik gabe, gehien erabiltzen dugun tresna informatikoa. Baina askotan ez dugu jakiten eratzten ditugun dokumentuak web orri bihur daitezkeela, eta era errazean, gainera; dokumentua gordetzean *Web orri bezala* aukeran sakatuz, hain zuzen ere.



Lukas RODRIGUEZ
IKTko programen teknikaria

Horrela, gero Nabigatzaile baten bidez ikus ditzakegu, web orri editore batekin eginak baileuden. Dokumentuz dokumentu joateko aukera ere badugu, testu prozesatzaileek estekak egiteko dituzten funtzioak aprobetxatzen baditugu.

Hori da ahalegin handirik egin gabe ikasiko dugun lehendabiziko gauza: normalean erabiltzen dugun tresna web editore bihurtzen.

Web orrien editoreak:

Bigarrenik, era profesionalean web orriak diseinatzeko erabiltzen diren programen gorabeherak ikusiko ditugu, eta arreta berezia Macromedia etxeko Dreamweaver programari ipiniko diogu.

Webgune baten eraketa, testu eta irudien formatua, markoak eta abar era errazagoan egiten dira editore horietatik. Eta webgune bat eratzeko behar diren oinarriko funtzioak ikasiko ditugu, ipiniko ditugun adibideak gure ingurune hurbilekoak direlarik: ikastetxearen web orria, apunteak edo ariketen publikazioa HTML formatuan.

Grafikoak eta grafikoaren trataera:

Askotan argazki edo irudiak gehitu nahi izango dizkiegu gure lanei erakargarritasun handiagoa emateko. Bada, atal horrek ere izango du bere txokoa ikastaro honetan. Irudien digitalizazioaz eta irudiak tratatzeko erabiltzen diren programez hitz egingo dugu, horietako baten oinarriko funtzioak ikasiz gure web orrietan irudiak sartu ahal izateko.

Interneten edo Intraneten argitaratzea:

Amaierako helburua, eta azkenengo urratsa, egindako lana argitaratzea izango da, gure ikastetxe Intraneten edo Interneten.

Horretarako, zerbitzarietara artxiboak bidaltzeko erabiltzen diren FTP programak eta Dreamweaver berak dakarrena aztertuko ditugu.

Ikastaroan egindako adibideak Interneteko zerbitzari batean eskegiko ditugu eta ondoren Internetetik kontsultatu ahal izango ditugu.



Power Point

Lekua: **Ekintza ikastolako ordenagailu gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia</p> <p>9:30</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarrera eta diseinu tresnak - Microsoft PowerPoint-en abioa: leiho nagusia, menu hedagarriak, tresna-barrak, ikuspegi motak... <p>Proiektua: diapositiba baten eraketa, emaitzaren esportazioa hainbat eredu grafikoren arabera. Hainbat formatu grafikoren analisia irudien definizioan (bektorialak eta rasterrak, dimentsioak eta bereizmenak...).</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA. Santo Tomas lizeoko irakaslea. Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpen berri baten sormena - Aurkezpen orriaren konfigurazioa. <p>Proiektua: norberaren diapositiba aurkezpenaren eraketa.</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpenaren pertsonalizazioa. - Aurkezpenaren konposaketa eta ekintzen konfigurazioa. - Kolore konbinaketa, formatu kopia, hondo pertsonalizatuak, diseinu txantiloak. - Organigramak eta beste OLE objektuak. - Hizlariaren oharra, partaideentzako dokumentuak, Wordera bidali. - Multimedia eta Internet: elkarrekintza eta estekak, weberako aurkezpenak. - Aurkezpenaren difusioa: denborak frogatu, aurkezpen portatilak, proiekturako laguntzailea. <p>Jarduerak: aurreko eredu eta banatutako eredu aipatuen analisia eta hobekuntza</p> <p>* Iñaki ZUBIZARRETA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Power Point

Microsoft-Office bildunak eskaintzen duen *PowerPoint* aplikazioa, multimedia aurkezpenak egiteko aukera ematen duen programa indartsua da. Ideiak erraz antolatzen, sendo ilustratzen eta profesionalki komunikatzen laguntzen du. Aurkezpenak ikus-entzunezko bitarteko garrantzitsuak izan daitezke hainbat eskola jardueratan. Bereziki erabilgarriak dira jendurereko ahozko aurkezpenak nahiz idatzizko idatziak egin behar direnean.

Multimedia aurkezpenen arloa asko aurreratzen ari da. Hori dela eta, diapositiba digital eta animatuak eraikitzea uste baino lan erosoa da eta ludikoa da. Microsoft **PowerPoint** ideiak antolatzeko, ilustratzeko eta egoki garatzeko tresna eraginkorra da. Gelan aurkezpenak egiteko balio du, era hunkigarrian komunikatzera iritsiz. Fitxategi berean testua, irudiak edota eskemak elkar daitezke. Gure adierazpenak aurkezpen hauekin lagunduta egiten baditugu, gure azalpenek arrakasta handiagoa izango dute.

Honelako diseinu aplikazio gehiago dago merkatuan: **PowerPoint** honetatik hasiz **Harvard Graphics** eredura iritsi gaitzake, **Corel Presentations** edo **Lotus Freelance**, adibidez. Bakoitzak bere alde onak eta txarrak izango ditu. Egungo estandarra aurkezten dugun hau izango da. Izan ere, zerbait badu **PowerPoint**ek bere alde zerbait badu, erabiltzeko duen erraztasuna da. Horren ezaguna den **Worden** erabiltzaile arruntena ere, berehala egingo da aplikazio honetara eta laster batean benetako multimedia ekoizpen osoak sortzen ikusiko dugu.



Iñaki ZUBIZARRETA

Santo Tomas lizeoko irakaslea
Ikastolen Elkarteko informatika taldeko kidea

Oro har, aplikazio hauek era bertsuan egituratzen dira. Aurkezpena eraikitzeko nahi hainbat diapositiba edo lamina sor ditzakegu. Lamina horiek euskarri mota askotarikoetan finka daitezke: gardenkiak izan daitezke, edo diapositiba arruntak, eta, jakina, pantailan edo proiektzio bidez aurkez daitezke. *Orri* horiek sekuentzia bat osatuko dute –sarritan, zenbait ibilbide ere aurreikus daitezke- eta proiektatzeko tresna batez ikusiko ditugu. Aurkezpenek, maiz, oso gidoi ezagunak jarraitzen dituzte eta lana aurreratu nahirik aurrediseinu eta txantilo ugari eskaintzen dira. Baina, gogoia izanez gero, nahi duguneraino eraman dezakegu gure sormen gaitasuna.

Eta zergatik da interesgarria PowerPoint irakaskuntzan?

Arbel elektronikoa

Oso gutxi izango dira arbelik gabe eskola ematen dakiten irakasleak, gehien-gehienok zerbait zirriborratzeko beharra dugu

etengabe. Eta hala ere, ezin dugu denok esku oneko marrazkilariak izan, eta are gutxiago bat-bateko diseinatzaile eraginkorrrak. Eredua aurretik egitea kalitatearen berme bilaka daiteke; garbitasuna, antolakuntza, hausnarketa...

Oinarri-oinarrian **e-arbela** proiektagailu bati lotutako ordenagailu multimedia bat da. Horrez gain, hainbat gehigarri txertatzen jarrai dezakegu. Oso interesgarria litzateke, adibidez, nolabaiteko sare lotura izatea Internet bidezko hainbat zerbitzu zuzenean eskaini ahal izateko. Era berean, lagungarria litzateke DVD irakurgailua izatea; horrela bat-batean arbela bideo zerbitzu bilakatzen dugu -batez ere ekipoak bozgorailu indartsuak baldin baditu-. Beste zentzu batean, izugarri praktikoa da proiektzioa ohiko arbel zuri baten gainean burutzea. Horri esker, errotulagailua aurkezpen birtuala *dinamikoki* osatzeko baliabide bihurtuko dugu. Hornitzeko ditugun aukerak kontuan hartuta, makina ibiltariak izango direla aurreikusitako beharko dugu, eta ondorioz, ordenagailu hori eramangarria baldin bada, hainbat hobeto.

Eta ikasleak zer?

Irakasleak bere lanerako erabil dezakeen bezalaxe, ikasleek ere etekin handia atera diezaiokete. IKT alfabetatze egokira iritsiz gero, egin behar izaten dituzten ekoizpenak –beren lan eta txostenak- paperezko euskarria gainditu eta sarritan multimedia produktua izatera iritsi daitezke. Gai baten inguruko aurkezpena prestatzeak eskolak betidanik oso interesgarritzat jo izan dituen hainbat zeregin aplikatzera bultzatzen gaitu: zerbaiten inguruko informazioa bilatu, laburtu, eskematizatu, gidioak eta hizketaldiak prestatu...

"SPC"

hizkuntza

Lekua: **Informatika Fakultatea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia		
Jarraian:	9:00	9:00
<p>Neobook multimedia programarekin material askotarikoa sortu eta egokituko da Komunikazio Handitze Sistemaren (SAC) barruan. Hau ordenagailu pantailan euskarri gisa erabiliko da Mayer Jonsonen Komunikazio Piktografiko Sistema erabiliz (SPC).</p> <p>Ikasgelan lantzeko ipuinak, abestiak, hiztegia... multimediarako aplikazioak era sinplean eta azkarrean sortuko dira, amaiaren itxura profesionala emanez.</p> <p>* Jose Manuel BELTRAN. Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu ikastetxe publikoko irakaslea.</p>		
14:00 BAZKARIA		



“SPC” hizkuntza ordenagailuaren bidez



Komunikazio piktografikoko sistemaz baliatzeko dagoen materiala oso eskasa da: ipuin batzuk katalanez eta liburu pare bat gaztelaniaz.

Informatika arloari dagokionez, programa bat baino ez dago, eta bera nahiko itxia.

Ikastaro honetan Neobook programari esker, SPC hizkuntzari bide zabala bezain berria irekiko diogu. Amaieran gai izango gara ipuinak, abestiak, inudien irakurketak, identifikazioak, sailkapenak... SPC hizkuntzara egokitzeko. Hori guztia, gure ikasleen ezaugarriei moldatuta eta euskaraz, noski.

Ikastaroaren helburuetako bat Neobook multimedia programarekin materiala sortzea eta egokitzea da, Komunikazio Handitze Sistemaren (SAC) barruan. Material hau ordenagailu pantailan erabiliko da euskarri gisa, Mayer Johnsonen komunikazio piktografiko sistemaz baliatuz (SPC).

grafiko sistemaz baliatuz (SPC).

Aldi berean, ikasgelan lantzeko ipuinak, abestiak, hiztegia... era simple eta azkarrean sortzea lortu nahi da multimediarako aplikazioak erabiliz eta amaieran itxura profesionala emanez. Lortutako emaitzak argitalpen interaktiboak izango dira: irudia, bideoa, soinua eta testua.

Bigarren helburu bat ere izango du ikas-

taroak: ukipen pantailak dituen aukerak, ahalbideak eta abantailak ezagutzera, hain zuzen ere.

Hasieran, eginda dauden jarduerak behatuko ditugu. Ondoren, CDaren edukiak aztertu, programak instalatu eta berehala materiala sortzera murgilduko gara. Ez ahaztu ikastaroa zeharo praktikoa izango dela.

Lehenengo lana irudiak aukeratzea eta grafiko programa batekin egokitzea (neurria eta artxibo mota, batez ere) izango da.

Bigarren lana soinua sortzea izanen da.



Material horrekin gure proiektua egiteari ekingo diogu. Eta honako hauek landuko ditugu: Neobook liburuaren ezaugarriak, orrien berezotasunak, irudien kokapena, testuak, hondoak, soinuak, gif bizidunak, sinboloak, botoiak, loturak, ekintzak, multimedia... Amaieran lantxo pare bat eduki-ko dugu esku artean, ekintza berriak egiteko trebetasuna lorturik.

Hurrengo irudi hauek lanaren mamian sartzeko eta eginkizunak nondik nora doazen jakiteko baliagarriak izango dira.



Jose Manuel BELTRAN

Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu ikastetxe publikoko irakaslea



Ipuinak bizi-bizian

Lekua: **Informatika Fakultatea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>Jarraian: Adibide batzuen bitartez, ikusi zer egin daitekeen epe labur baten barne programa hauekin, "gogo erabilketa" kontuan hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Macromedia director - Powerpoint - Klik <p>Datu-base bat nola egiten den ikasi eta fitxategiak prestatu.</p> <p>Numerizazioari buruzko urrats beharrezkoenak erakutsi eta apuntatu.</p> <p>Hotsen hartzeko teknika aurkeztu eta gomendioak egin.</p> <p>Ipuinak hautatu taldeka (kondairako protagonisten kopurua gogoan, baita ere ikastaldiko epe laburra; dena den, norberak berea egiten ahalko du ipuin laburra hautatzen baldin badu).</p> <p>* Mixel JORAJURIA. Lehen Hezkuntzako irakaslea Iparraldeko sail elebidunean. Informatikaria.</p>	<p>9:00 Lehenik gogoratu bezperan gomendatuak. Gero, lanari lotu, hiru tailerretan aldizkatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hotsen hartzen . - Irudiak prestatzen. - Diaporama abiatzen Macromedia, Klic edo Power Point-ekin, "gogo erabilketa" gogoan. <p>* Mixel JORAJURIA.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Goragoko programa horiei buruzko jakitarea berriz gogoratu eta labur bildu. - Diaporama ondu. - Lanak CD-ROM batean ezarri. - CD- ROM hori kopia bakoitzak ukaiteko gisan. <p>* Mixel JORAJURIA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Ipuinak bizi-bizian

Irudia, ahotsa eta musika sagu klik baten menean.

Ikastaro honetan ikasle bakoitzak ipuin multimedia baten eraikuntzan parte hartuko du eta ipuin erabilgarri batzuk etxera eramaten ahalko ditu CD-ROM batean. Ipuin horiek prest ezarriko dira ordenagailuan ikusteko eta entzuteko gisan.

Erabiltzailea jaun eta jabe izanen da: nahi duenean klikatuz entzun edota ikusiko du ipuinaren segida.

Zati batzuk gogoz ikasteko erraztasuna eskainiko da; "Gogo Erabilketa"ri buruzko gogoeta bat hasiko da azken parte hau egiterakoan.

Nola?

Ekoiizpenaren ontzeko, programa hauek erabiliko dira, jendeak nahi duenaren arabera:

- Macromedia director
- Power Point
- Klik

Beren funtzio arruntenetan erabiliko dira, edozein heinetako parte-hartzaileari egokia izanen zaion moduan.

Iturriak:

Ipuinak osatzeko hainbat iturri erabiliko dira:

Irudiak:

- Parte-hartzaileei aitzinetik eskaneatutako zenbait ipuin proposatuko zaizkie, Xirristako ipuin batzuk edo Gexan Lantzirirenak.

- Parte-hartzaileak bereak landu nahi baldin baditu, ekar ditzala, bertan erabakiko da nola moldatu eskanerren eta astiaren arabera.

Irudiak lantzeko PhotoShop programaren funtzio arruntenak erabiliko dira.



Mixel JORAJURIA

Informatikaria

Lehen Hezkuntzako irakaslea Iparraldeko sare elebidunean

Baiona Paueko IUTko DUTIC diplomaduna

Soinua:

- Xirristako ipuinak, jadanik grabatuak, eskumenean izanen dira;

ordenagailuan sartu eta zatitu egin behar dira gero datutegian gordetzeko.

- Parte-hartzaileak nahi badu, Lantzirirenak edo norberaren ipuinak grabatuko ditu.

Horretarako, Wave studio edo Sound Forge erabiliko dira.

Lehen egunean, adibide batzuen bitartez, epe labur baten barne zer egiten ahal litza-

tekeen ikusiko dugu "Gogo erabilketa" (Gestion mentale) kontuan hartuz eta programa hauekin: Macromedia director, Power Point eta Klik.

Datu base bat nola egiten den ikasi eta fitxategiak prestatuko ditugu. Eta baita zenbaketari buruzko urrats beharrezkoenak erakutsi eta apuntatu ere.

Era berean, hotsen hartzeko teknika aurkeztu eta gomendioak egingo dira. Ondoren, ipuinak hautatuko ditugu taldeka (kondairako protagonisten kopurua gogoan, baita ere ikastaldiko epe laburra; dena den, norberak berea egiten ahalko du ipuin laburra hautatzen baldin badu.)

Bigarren egunean lehenik bezperan gomendatutakoak gogoratuko ditugu. Gero, lanari lotuko gataizkio eta hiru taillerretan aldizkatuz arituko gara hotsen hartzen, irudiak prestatzen, "diaporama" abiatzen Macromedia, Klik edo Power Pointekin, beti "gogo erabilketa" gogoan.

Hirugarren egunean ikusitako programa horiei buruzko jakitatea berriz gogoratu eta laburbilduko dugu: diaporama ondu, lanak CD-ROM batean ezarri eta CD-ROM hori kopiatu, bakoitzak ukaiteko gisan.



Alexander teknika

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.5 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:	9:00	9:00
<p>F.M.Alexanderrek (1869-1955) ahotsaren arazoak gainditu ahal izateko teknika hau sortu zuen bere buruarekin erlatasun arazoa aztertu zuenean. Hasieran, bere teknikari "Arnasketa eta bokale berrezierako metodo berria" izena eman zion.</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikastaro hau lantzeko moduan arnasketa-bokale berreziketari oinarrituko gara.- Horretarako, talde eta bakarkako klaseen bidez, Alexander Teknikako printzipioak aurkeztu eta ahotsa-arnasketarekin erlazio naturalak dauden prozedurak landuko dira. Ezaguera praktikoak esperientzia sensorialaren bidez ulertuko dira.- Kontrol Primarioaren ezaguera; hau da, burua-lepoa eta bizkarrezurraren artean dagoen erlazio horren ezaguera eta kontrol primarioaren erabileraren hobetzea ahotsa eta arnasketa indirektoki hobetu ahal izateko.- Ikastaroaren egitarauan printzipalki ahotsaren erabilerari oinarrituko gara, kontrol primarioa hobetzeko helburuarekin.- Taldeko eta bakarkako lanean tentsioak landuko ditugu kontrol kontzientearekin batera Alexander Teknikako prozedura zehatzen bidez. <p>* Anne LANDA. Alexander Teknikako irakaslea. Amsterdamgo Alexander Teknikako zentroan diplomatua.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Alexander teknika



Alexander Teknikak gizakiaren erabilera lantzen du. Gure mekanismo psikofisikoaren erabilera ona bada, funtzionamendua ere ona izango da.

Ikastaro honen helburu nagusia ikaslearen kontrol kontzientea hobetzean oinarrituko da, bere gorputzaren erabilera hobetu ahal dezan. Hori lortzeko, irakaslearen laguntzaz ikasleak hainbat prozedura ikasi ahal izango ditu bere erabilera eta besteen erabilera aztertuz oreka eta mugimenduen askatasuna lortu ahal izateko. Kontrol kontzientea eta pertzepzio argia edukitzea beharrezkoak dira arnasketa, ahotsa eta gorputzaren erabilera naturala berreskuratu ahal izateko.



Anne LANDA
Alexander Teknikako irakaslea



Plastika adierazpena

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 0.2 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <p>Inprimaketa teknika eta txotxongiloak.</p> <p>* Bea ARREGI. HUHEZIKo irakaslea.</p>	<p>9:00 Txotxongiloak eta papera.</p> <p>* Bea ARREGI.</p>	<p>9:00 Txotxongiloak eta papera.</p> <p>* Bea ARREGI.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Plastika adierazpena

Inprimaketa teknikak

Inprimatzea zera da: marrazki, motibo edo konposizio bat berregitea objekturen baten laguntzaz (belaki, zigilu...) eta horretarako, markatzeko, aukeratu dugun materiala eskuz edo mekanikoki prentsaturaz. Ale askotan marrazki berdina edo antzekoa lortzeaz aparte, inprimaketak adierazpide ahalmena zeharo hedatzen du. Inprimatzen ari den haurrak, nerabeak edo nagusiak aldaketak asmatzen gozatzen du. Kasualitateak eta bakoitzaren ahalmen sortzaileak batera mugarik gabeko esperientziak sortzen ditu. Edozein material gainetan inprima daiteke: biltzeko paperean, marrazki paperean, egunkarian, kartoian, kortxoan, beiran, metalean, buztinean, ehunean...

Pinturak euskarriaren arabera aukeratu ditugu:

- Gouatxea, dagoen bezala edo uretan gesaldua, paper, kartoi, kortxo, egur edo ehun gainean ere erabil daiteke; material hori garbitzen ez den bitartean, noski.

- Tinta mateaz edo tipografikoaz, uraz hondatzen ez diren erreproduzioak lortzen dira.

Aholku teknikoak ondo inprimatzeko:

- Paper gainean inprimatzeko mahai arrunta erabil daiteke, baina gehiegi ez zikintzeko beharrezkoa dugu mahaia egunkariz estaltzea.

- Pintura tutu edo poteek ongi itxita egon behar dute pintura lehor ez dadin.

- Pintzelak, brotxak eta rodilloak erabiltiaz bat garbitu egin behar dira.

- Inprimaketa sinpleenak ez du inongo materialik behar, atzamarren arrastoaz egiten da. Sistema honi esker ezagutzen ditugu gizonaren lehen pintura adierazpenak, leize



Bea ARREGI
HUHEZIKO irakaslea

zuloetako hormetan lur gorritz zikindutako eskuak ezarriz egindakoak. Era berean, haurrari ere, txiki-txikitatik, bere esku eta oinen arrastoak hondarretan, lokatzetan nahiz elurretan uztea gustatzen zaio. Gustatzen zaio bere hatzen arrastoa paperean edo hormetan ezartzea ere. Teknika honetarako pintura lehor samarra erabiltzea komeni da hatzetako arrastoa hobeto antzeman dadin.

Erabilpen arrunteko objektuak ere erabil ditzakegu inprimatzeko: botila kortxoak, kartoi, espartzua, esponja, ezabagoma, torlojuak, fruituak, barazkiak, hortz-eskuila eta abar.

Irakasleak lan egiteko eskura daukan edozein material sar dezake jardura plastikorako programan, baita bere teknika propioak sortu ere. Material eta baliabideen mugak inoiz ezin dira aitzakia izan ekintza-programa ona ez izateko; izan ere, sarri, muga horiek akuilu dira sormen lan interesgarriagoetara iristeko.

Txotxongiloak

Txotxongiloen bitartez hainbat alderdi estimulatuko dugu: motrizitatea, alderdi

sentsoriala, komunikazioa, borondatea, fantasia, behaketa, kontzentrazioa, artearen zentzua, norberaren onarpenean, azterketa matematikoa eta psikologikoa, dialektika, musika, erritmoa, harmonia, ahotsa, hizkuntza eta koordinazioa; hitz batean esanda, sormena, edo gauza bera dena, espresioa. Hortaz, txotxongiloak egingo ditugu eta horretarako hainbat teknika landuko ditugu.

Papera

Haurrak ariketa ugari egin dezake papearekin: atzamarrekin edo guraizeekin ebaki, marraztu, pintatu, itsatsi, zulatu, bata bestearen gainean jarri, konbinatu... Ikastaro honetan hainbat gauza egingo dugu: maskarak, jaietarako apaingarriak, girdandak, postalak, egindako irudiak zutik jartzeko zenbait sistema... Hartara, papera bezain material simple eta merkearekin jardura asko eta interesgarriak ateratzeko gai izango gara.



Euskal dantzak

Lekua: **Ekintza ikastolako musika gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia		
9:30	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none"> - Baztango IRRI DANTZAK - Txulalai - Sorgin dantza - Zapatari dantza - Zazpi jauzi - Luzaideko martxak - ... 		
* Jon MAYA. Dantzaria.		
		14:00 BAZKARIA



Euskal dantza tradizionalak



Ikastaro honen hartzaileak haurrekin jarduten duten irakasleak direla kontuan hartuta, ikastaroaren helburu nagusia haiei haurrekin lantzeko oso erabilgarriak diren dantza, mugimendu eta jolas ezberdinak aurkeztea izango da. Proposatutako ariketa horiek denek eskal folklorea dute oinarria.

Haurrak musikaren hezkuntza abiatzen direnean ohikoa da haiekin erritmoa, mugimendua eta koordinazioa lantzeko ikasgaiak barneratzea. Irakasleek ere sarritan jotzen dute argitaratuta dauden mugimendu eta jolas metodo ezberdinetara, ikasgai hauek antolatzeko ereduena bila. Baina horiek aurkitzeko ez dugu zertan urrutira joan behar, Euskal Herriko folkloreak berak ikasgai horietarako oso baliagarriak diren jolas eta dantzak biltzen baititu. Horregatik, ikastaro honen helburu nagusia irakasle multzo horri eduki horiek guztiak aurkeztea eta haien erabiltzenerako gonbitea egitea da.

15 orduko ikastaro honetan landuko ditugun dantza horiekin bi helburu lortuko ditugu, batez ere. Batetik, haurrekin psikomotrizitatea, erritmoa, arintasuna eta abar landuko ditugu. Heziketa fisikoko edo soinetako eskolatan jorra ditzakegun alor horietan guztietan egin dezakegu lan. Bestetik, euskal kulturaren alor batekin lehenengo harremanak hasiko ditugu. Dantza-erikiko zaletasuna piztea, euskal kultura zein folklorea erekin ezagutza bultzatzea... Haurren kultur heziketaren lehenengo urratsak abiatzen has gaitezke, eta dantza edota folklorea mundua modu naturalean jasotzen has gaitezke. Oro har, esan daiteke balio fisiko zein kulturelek bat egin



Jon MAYA
Dantzaria

dezaketela jarduera honetan.

Jorratuko dugun egitaraua bereiziki haurrekin lantzeko oso interesgarriak diren dantzak topatuko ditugu, dantzak izan arren jolas izaera dutenak. Dantza modu honen multzorik esanguratsuenetakoa Baztango irri dantzak dira, baina Euskal Herriko beste lurraldeetan ere badira jolas izaera hori mantentzen duten beste zenbait dantza. Bestalde, dantza jolas horiekin batera, plazako dantzetara sarrera txiki bat ere egingo dugu. Izan ere, dantza horiek errazak dira ikasteko, eta edozein euskal herritarrek dantzatzeko aukera du edozein jai edo festetan.

Euskal folklorea zati txiki baina aberats honen ezagutza eta bertan biltzen diren dantzen irakaskuntza izan da ikastaroaren helburu nagusia. Hori guztia kontuan hartuta, modu honetan antolatutako dantza ikastaroa:

1- Euskal folklorea baitan haurrentzat interesgarriak izan daitezkeen elementuen azalpena:

- Dantza sozialak
- Dantza jolasak

2- Zenbait dantzen irakastea:

- Baztango irri dantza: - Katadera dantza
- Esku dantza
- San Petiti qui danse

- Txualalai
- Jauzien hastapenak: Zazpi jauziak, Zapatagin dantza
- Abaltzisketako txantxoak
- Sorgin dantza
- Luzaideko martxak
- Lantzeko zortzikoa

3- Baliagarria izan daitezkeen materialaren azalpena:

- Bideoak
- Liburuak
- Diskoak

Oro har, ikasgai praktikoa izan da eskolatan erabili ahal izateko material eta ezagutzak zuzen-zuzenean aurkeztu dituenak.



Antzerkia

Lekua: **Zurriola ikastola**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa Pedagogia Fakultatean 9:00 Sarrera ekitaldia Pedagogia Fakultatean Jarraian Zurriola ikastolan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beroketa ariketak. Jokoak. - Sudurrarekin ariketak. Sarrerak. Ikusleekiko kontaktua. <p>* Joserra FACHADO. Aktorea, irakaslea. Zurriola Antzerki Eskolako koordinatzailea. 7 urtetan Lehen Hezkuntzako ikasle eta gazteekin Klown-a lantzen aritua.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beroketa ariketak. - Inprobisazioak. Banaka, binaka eta taldean. - Testuen lanketa. <p>* Joserra FACHADO.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beroketa ariketak. - Inprobisazioetan oinarritutako antzezlan txikia. - Testuen oinarritutako antzezlan txikia. <p>* Joserra FACHADO.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Antzerki klown-a



Klown ikastaroa egin nuen lehenengo aldian liluratu sentitu nintzen. Aurretik aktore moduan, beste estilo asko jorratuta nauzkan, baina klownak ireki dizkidan bideak izugarriak izan dira. Hasteko, bakoitzaren izaeratik ateratzen da pertsonaia, eta beraz lan naturala da, eta estiloa ezagutu eta gero izugarriko tresna da emozioak eta egoera ezberdinak sentitzeko eta adierazteko. Zer gehiago eska diezaiekegu gure ikasleei?



Joserra FACHADO
Aktorea eta irakaslea

litzaidake, horrela, hirugarren egunean ari-keta batzuk egin ondoren, antzerkitxo batzuk egiteko prest egoteko. Azken finean, euskara, rolak, pertsonaiak eta abar klownetik ere landu ditzakegula konturatu-ko gara, eta baita gazteei axola zaien edozein gai ere ikus dezakegula.

Askotan pailazoa haur bat bezalakoa dela esaten da, eta iritzi horrek nahiko arrazoiak dauka. Klownaren munduan haurren ezaugarri asko daude. Esate baterako, haien txantxak, erantzunak, umore aldaketak, bat-batekotasuna. Guri gehien interesatzen zaiguna haurrek jolasteko eta esperimentatzeko duten gogoia da. Horregatik, esperientzia honetan sinesten dut, eta ikastoletan, eskoletan, aisialdiko taldeetan edota antzerkiko tailerretan erabil daitekeela uste dut.

Mesedez, ez beldurrik izan ikastaro hau egiteko, gure klowna ezagutzeko abentura alai eta askatzailea burutuko dugu. Ez dugu asko exijituko, jolasteko gogoia izatea eta sentikor izatea baino ez. Animo.

Ikasleekin klowna lantzen duen inor ez dudala ezagutzen aitortu behar dut, eta berez arlo horretan nahiko autodidakta izan naizela ere bai. Baina urtero ikusten ditut nire ikasleak, estilo hori landu eta gero, desinhibituak, inongo lotsarik gabe aktuatzen, benetako egoerak sentitzen, emozioak indar bereziz adierazten.

Ez naiz oso teorikoa, are gehiago, gero praktikara eramatea ezinezkoa bada, ez zait interesatzen. Horregatik, ikastaroa oso praktikoa izatea nahi dut, zuek gero, bakoitzak bere mailan, ikasleekin lantzeko.

Badakit hiru egun gutxi direla, baina gutxienez lehenengo kontaktua izango da, oinarri zehatz eta garbi batzuekin, gero zuek beste urratsa batzuk emateko, beste ikastaro batzuk egiteko, edo agian, ikasturtean elkartzeko eta gure esperientziak trukatzeke.

Klown estiloa lantzen hasiko gara, zer ezaugarri dituen aztertzen eta garrantzitsuena: esperimentatzen. Horretarako beroketak, jokoak, ariketak... egingo ditugu eta egoera desberdinetan klownak jartzen,

ikusleekin kontaktua sortzen, bakarkako sarrerak egiten, bikotean lantzen... arituko gara. Horrela, bakoitzak bere barruko klowna ateratzea lortuko dugu. Bigarren egunean oraindik beroketa eta joko batzuk egingo ditugu, eta arropa desberdinak jantziko ditugu. Segur aski bat-bateko saio batzuk egiteko prestatuta egongo gara. Testu simple batzuk ere lantzea gustatuko



Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak

Lekua: **Ekintza ikastolako goiko aterpea**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia</p> <p>9:30: Ikastaroaren aurkezpena Jolasaren ezaugarriak eta garrantzia Ohiko jolasak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpen eta girotze jolasak - Esku, behatz eta txalokako jolasak - Goma jolasak - Itsuka jolastekoak <p>* Jaime ALTUNA. Urtxintxa Eskolako kidea.</p>	<p>9:00</p> <p>Txantxibiri kaminoren eguna</p> <p>Euskara eta jolasa Euskaraz jolasteko esamoldeak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezkutaketa jolasak - Harrapaketa eta korrika - Sokasaltokoak - Trebetasun jolasak (tortoloxak, intxaurjokoak, trikila, txapak...) - Bidaia jolasak <p>* Jaime ALTUNA.</p>	<p>9:00</p> <p>Juana Joxepa Tronpetaren eguna</p> <p>Euskarazko jolas berriak Jolas tailerra</p> <ul style="list-style-type: none"> - Animazio eta mimika jolasak - Korro jolasak - Lerrokakoak - Balo jolasak - Txingoka <p>* Jaime ALTUNA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Euskaraz jolasten



Etxekolanak partikularrak
solfeoa ingelesa
do re mi fa sol kortxea berol
table da mahai, table, mesa
hainbeste ordu eta ardurek
sortzen digula estresa
jolaserako denborarik ez
hau da bizitza aldrebesa!
Guraso maite entzun (e)zazue
zein den gure interesa...



Jaime ALTUNA
Urtxintxa eskolako kidea

Eskolako jolas orduetan ohikoa bihurtu zaigu haurrak erdaraz jolasten entzutea, jolasen abestiak eta jolasteko erabiltzen diren esamoldeak inork ez baitizkie erakutsi. Gure helburua hizkuntzaren transmisioan eten den katenbegia osatzea da: haurrei euskaraz jolasteko tresnak ematea. Erabat dinamiko eta parte-hartzaile den ikastaro honen bidez, jolas zaharrak eta jolas berriak lantzen ditugu.

Jolasak, hizkuntzaren normalizazioarako tresna

Jolasa, ekintza askea izateaz gain, ezagutzak oharkabean jasotzeko tresna ezin hobea da, hizkuntza (euskara) barneratzeko tresna, besteak beste. Alde batetik, hizkuntza formal lantzeko erabil daitekeen teknika da, baina, batez ere, hizkuntza ez formal sustatzeko baliagarria da. Hau da, jolasa euskara kalera ateratzeko modu bat da: abestiak, esamoldeak, hiztegia... jolasa dibertigarria delako eta haurrek denbora asko pasatzen dutelako jolasean.

Nabarmentzekoa da jolasaren bitartez hizkuntzaren erabilera ludikoa ahalbidetzen dela, eta honek ere berebiziko garrantzia du hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Haurrarentzat jolasa dibertigarria da. Euskaraz jolas egiten ondo pasako du haurrak, gustu-

ra sentituko da, eta euskara jarduera dibertigarriarekin lotuko du. Euskara gauza aspergarriak ikasteko baino zerbait gehiagorako izan daitekeela ikusiko du oharkabean.

Euskarak, bere normalizazio prozesuan, bizitzaren hainbat arlotan ohiko presentzia behar du, baita jolasetan ere. Haurrak ikusi behar du bere bizitzako hainbat esparrutan erabil dezakeela euskara, ez duela zertan erdal erregistroetara jo, normalean erdaraz esaten dituen esamoldeak edo esaerak euskaraz ere, egon, badaudela.

Jolasak, kulturaren transmisioarako tresna

Jolasteko moduan herri baten identitatea transmititzen da; haurren artean kultur sormen eta transmisio handiena jolastuz egiten da. Euskal jolasek Euskal Herriko ohiturak ezagutzeko aukera ematen dute: garai batean zertan eta nola jolasten zen, zein baliabide erabiltzen zituzten... Adibidez, kristalezko kanikarik ez zenean, fruituekin egiten ziren gaur egun kanikekin egiten diren jolasak. Honela, joko asko daude intxaurrekin egiten direnak (intxaurreta, botxo...).

Beste hainbeste esan daiteke jolas jarduera horietan erabiltzen ziren esaera eta esamoldeei buruz, abesti, dantza eta ipuinei buruz, horietako asko egun erdaraz erabiltzen baitira.

Jolasen gizarte balioa

Hainbat arrazoi medio (gutxiago jolasten dute haurrek herri edo auzoetako karriketan, jostailuen merkataritzaren eragin basatia, lehiakortasun akademikoen gizarte delakoa...), jolas liberearen edo bat-batekoaren jarduna gutxituz joan da. Honela, Euskal Herrian orain dela denbora gutxi arte erabiltzen ziren jolasak galtzen joan dira, transmisio naturalaren katea eten da (familia, kalea), gehienak oso gune zehatzetan eta ozta-ozta mantendu dira.

Produktibitatea helburu dugun gizarte honetan, helburua produktua ez duen beste edozein jardura denbora galtze gisa ikusi izan da. Hauxe da aisialdiak eta jolasak bereziki apurtu nahi duen uste okerra; are gehiago, jolasa denbora irabazteko bitarteko bat dela aldarrikatu nahi dugu.

Beraz, euskarazko jolasa lozorroan dagoen altxortzat jo dezakegu eta berarekin jolaserako espazioa eta denbora berreskuratzea eta jolasak sortzeko gaitasuna sustatzea landu nahi dugu.

...Baloia(re)kin jolatu
pilotan aritu
joko berrik asmatu
abenturak sortu
kale(e)tako paretak
graffitiz margotu
ondo pasa ta ikasi
egunero uztartu
gure astialdia
gehiago maitatu

Jolas kooperatiboak

Lekua: **Ekintza ikastolako bideo gela eta gimnasio txikia**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia</p> <p>9:30</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartze programen oinarri teorikoa. - Jolas kooperatiboaren programen ezaugarriak. - Taldean ezartzeko prozedura. - Metodologia eta programak ebaluatzeko baliabideak. - Esku-hartze programen baliozko azterketa enpirikoak. <p>* Maite GARAIGORDOBIL. EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea. (<i>Gaztelaniaz</i>)</p> <p>* Ainhoa DURÁ. <i>Haur psikologoa.</i></p>	<p>9:00</p>	<p>9:00</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Jolas kooperatiboak

Ikastaro honetan jolas kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako interbentzio psikozentzualaren adar bat aurkeztuko dugu. Beronen helburua garapen soziala, afektibo-emozionala eta haurren sormena bultzatzea da.

80ko harmarkadatik hona Haur eta Lehen Hezkuntzako hainbat taldetan ezarri dugun proposamen honen oinarri teorikoa ikerketako hiru korronte handiren ondorioetan datza. Lehenengo eta behin, haurren jolasen inguruko ikerketen ondorioak; giza garapenerako aktibitate funtsezkoa da, haurraren garapen integralean eraginkortasunez eragiten baitu, hau da, haurraren garapen psikomotriz, intelektual, afektibo-emozional eta sozialean. Bigarrenik, portaera sozialaren aldeko ikerketen ondorioetan oinarritzen da; hortik atera dira garapen pertsonal eta sozialaren hainbat faktoretan nolako onurak dituen heziketaren testuingurutan kooperatiboak versus lehiatiboak. Eta hirugarrenik, sormenaren gaineko ikerketak daude; ikerketa horiek haurraren sormenaren garapenean entrenatzeak duen eraginkortasuna baieztatzen dute.

Jolas kooperatibo eta sortzaileen programetako aktibitateek bi helburu nagusi dituzte. Lehenengo, beren hazkundean arazorik ez duten haurren garapen integrala bultzatu nahi da, bereziki alderdi sozio-emozionaletan eta sormenaren garapenean eraginez. Bigarrenik, programa honek funtzio terapeutikoa dauka, jolasaren esperientziaren bitartez lagunekin interakzio arazoak eta beren garapenean bestelako arazoak dituzten haurrak sozialki integratzen direlako. Bi helburu nagusi horiez gain, beste hainbat zehatzago ere biltzen ditu programak.



Maite GARAIGORDOBIL

EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea

Oro har, programako jolasek komunikazioa, kohesioa, konfiantza eta sormenaren garapena estimulatzeko dituzte. Eta horren azpian elkarrekin jolastuz eta asmatuz onartzeko, errespetatzeko eta partekatzeak ideia dago.

Programa honetarako sailkatutako jolasek egiturazko bost ezaugarri dituzte:

1- Parte-hartzea: jolas hauetan taldeko guztiek parte hartzen dute, ez da inoiz inork kanporatzen eta ez du inork irabazi edo galtzen. Xedea da taldeko helburuak lortzea eta horretarako taldekide bakoitzak beharrezkoa den eginkizuna du jolasaren barruan.

2- Komunikazioa: jolas guztiek talde barruko komunikazio prozesuak egituratzen dituzte.

3- Kooperazioa: jolas gehienek harreman dinamika estimulatu dute. Horrek taldeko helburua lortzeko elkarri laguntza ematea dakar.

4- Fikzioa eta sormena: errealitatea edo egia "balitz bezala" jolastan da, hots, elefanteak, hegazkinak, piratak edo artistak... bagina bezala, eta elementu berriak sortzeko estimuluak ere konbinatzen dira.

5- Dibertsioa, ondo pasatzea: jolas hauen



Ainhoa DURÁ
Haur psikologoa

bidez haurrak taldekideekin positiboki eta era konstruktiboan arituz ondo pasa dezaten ahalegintzen gara.

Programak hainbat dimentsiotan (ahozkoa, dramatikoa, plastiko-konstruktiboa eta grafiko-figuratiboa) komunikazioa, gizartearen aldeko portaera eta sormena estimulatzeko 60 jolasez osatuta daude. Programako ekintzak bi modulu edo talde handitan banatzen dira:

1- Komunikazioa eta gizartearen aldeko jarrera jolasak

2- Sormen jolasak

Programa hau gelan ezartzeak hiru fase inplikatu ditu: testaren aurreko ebaluazioa, jolas programaren ezarpena eta testaren ondoren ebaluazioa.

Egin diren ikerketek enpirikoki frogatu dute jolas kooperatiboek eta sortzaileek garapenean duten garrantzia. Izan ere, haurraren sormena eta garapen sozio-emozionalerako baliagarri diren interbentzio psikozentzualerako tresna ludikoak sistematizatzen ditu.

Psikomotrizitatea

Lekua: Pedagogia Fakultateko 0.6 gela

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <p>Parte-hartzaileen nahiak, beharrak eta jakituria kontuan izanik, garapenaren psikologiaren eta psikomotrizitatearen oinarriko kontzeptuak gogoratzuz lanari hasiera emango diogu.</p> <p>* Elena HERRAN. Irakaslea, psikomotrizista eta psikologoa. Bilakaera eta hezkuntzaren psikologiaren irakaslea EHUUn. Psikomotrizisten Lanbide Elkarteko (APP) kidea.</p> <p>* Rikardo ACEBO. Hezkuntza bereziko laguntzailea, psikomotrizitate terapeuta. Psikomotrizisten Lanbide Elkarteko (APP) kidea.</p>	<p>9:00</p> <p>Bideo eta diapositiben bidez psikomotrizitate saioren bilakaera aztertuko dugu: espazioa, denbora, materiala, haurren produkzioak, psikomotrizistaren parte-hartzea eta abar.</p> <p>* Elena HERRAN. * Rikardo ACEBO.</p>	<p>9:00</p> <p>Kasu zehatzak edota norberaren esperientzien ondoriozko bizipenak, aurkikuntzak, zalantzak eta abar jorrazteko aukera izango dugu.</p> <p>* Elena HERRAN. * Rikardo ACEBO.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Psikomotrizitatearen inguruan



Ikastaro honetan proposatuko dugun ibilbide didaktikoa psikomotrizitate prestakuntzaren ardatz pertsonalean, teorikoan eta praktikokoan oinarritzen da. Taz alde pertsonala landu baldin bazen, aurtin haur garapena ulertzeari eta laguntzeari ekingo diogu. Beste modu batera esanda, laguntzaren baldintza ulertzea da: haurren garapena (alde teorikoa), haurren adierazpena (alde praktikoa) eta noberaren harremanetarako joerak (alde pertsonala) ulertzea, hain zuzen ere.

Ikastaro honetako hausnarketaren abiapuntua parte-hartzaileen aniztasuna izango da, horrela lana aberasgarriagoa izango baita. Beraz, norberaren aurretiko ideietatik abiatuko gara: eskarmentuak, jakin-minak, kezkek, ustek eta abarrek emango diote gure proposamenari forma ikastaro osoan zehar.

Garapenaren psikologiaren arabera, haurra bilakaera bere ezaugarriek, bere inguruak eta berarekiko harremanak aldatzeko gaitasunak baldintzatzen dute. Hasieran gorputzaren mugimendua erreflexu soila izan ohi da. Ondoren, sei hilabetetik aurrera, emozioak agertzen direnean, haurra jarduerarik funtsezkoena tonu muskularraren ezarpena da. Urtebete inguruan, aurreko jarduera emozionalari sensoriala eta motorra gehitzen zaizkio, batez ere oinez hasten denean eta atxikitzeko gaitasuna lortzen duenean. Hautemateari esker, haurrak ekintza kontziente bihurtzen du eta ingurua arakatzeari ekiten dio. Arakatzeko honetatik ezagutzarako eta sailkapenerako gaitasuna sortzen da, hizkuntzaren zeregin nagusia dena. Hiru portaera edo aldi hauetan nortasunaren garapena ere gauzatu da.

Behaketa oso tresna garrantzitsua da psikomotrizitatean. Alde teorikotik praktikora iga-



Elena HERRAN

Irakaslea, psikomotrizista eta psikologoa



Rikardo ACEBO

Hezkuntza Bereziko laguntzailea, psikomotrizitate terapeuta

rotzeko behaketaz baliatuko gara, eta saio errealtan grabaketaren bidez psikomotrizitate saio bat bere osotasunean aztertuko dugu: antolakuntza, espazioak, materialak, haurren produktzioak, gure esku-hartzea eta abar. Horren ostean, diapositiba saio birtual bat eskainiko dugu aurreko guztia sakonago ulertzeko.

Saioren antolakuntzaren oinarritzeko egitura ikusi eta gero, adin desberdinetako haurren bideoak ikusi eta aztertuko txanda izango da. Haurra adierazpena eta saioko gertakizunen bilakaera ondo uzartu ahal izateko, psikomotrizistaren jarrerak ezin du edonolako izan. Horrela bada, aurrerakoia eta laguntzailea izateko bete behar dituen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Eguneroko jardura hezitzaileak sortzen dizkigun zailtasunen artean, batzuk maiztasunez edota intentsitatez nabarmentzen dira, eta haietaz ere arituko gara. Esate baterako, agresi-bitateari, autoritatearekiko portaerari eta inibizioari arreta jarriko diegu, sakoneko esanahiaz jabetzeko asmoz. Parte-hartzaileek ekarritako kasuak ere aztertuko aukera izango dugu, etorkizuneko esku-hartzea egokitzeko helburuarekin.

Psikomotrizitatea eskolako haurren artean ospe handiko zeregina da, oso ondo pasatzen dute eta. Hori ulertzeko proposatzen dugu lan hau eta proposamena, itxura serioegia izan arren, atsegina eta dibertigarria izatea espero dugu.



Haurrentzako masajea

Lekua: **Ekintza ikastolako gimnasioa**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia 9:30	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none"> - Masajea nola eman, zergatik eta zertarako. - Masajea ukipen premiak asetzeko lagungarri. - Masajeak haurren osasunari eta garapen fisiko zein emozionalari zein onura ekarriko dizkion aztertuko dugu. - Autoerrealizaziora emandako jarraibideak aztertuko ditugu. - Familia-ekosistema, oinarritzko prebentzioa, gorputzaren eskema, eta gorputz-kontrola aztertuko ditugu; hau da, psikomotrizitatearen oinarriak. - Ukitzea, sentitzea eta emaitza kokatzea landuko ditugu: ukitu + sentitu = kokatu 		
<p>* Ramon MADUIT. Psikologoa eta prebentzian aditua.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Ukitu-sentitu-kokatu



Laztanduak izan, sehaskan kulunkatuak izan, ukituak izan, masajea jaso: horiek guztiak haur txikien elikagai dira.

Haurra inguratzen duen giroak erabateko eragina izango du bere garunaren garapenean.

Gaur egun badakigu, jakin ere, jaioberria ez dela izaki pasiboa, eta haurren gaitasunak lo egitearen eta jatearen mugak gainditzeko dituela. Jaiotze-unetik beretik, baita lehenagotik ere, ezin susmatu ezin diren gaitasunak erakusten ditu.

Jaioberriaren larruazal-sentimena ez-ohikoa da. Heldu batek jasotzen dituen sententzioak jaso ditzake, eta hotz-beroak, goxotasuna eta gogortasuna, leuntasuna eta laztasuna, itsaskorra eta irristakorra, denak bereiz ditzake, baita presioaren xamurtasuna ere.

Haur baten ukimen-sentsazioaren susperririk hoberena larruazalaz elkar ukitzea da. Amak haurra, bere bularraren kontra jarrita, laztantzen duenean, berehala etorriko zaio haurrari lasaitasuna.

Haur bat laztandu, edo masajea emango badiogu, eskuaren presioa zenbatekoa izan behar den ikasi behar dugu. Laztan eztegiek jaioberria asper dezakete. Haurrek laztan leun baina energetikoak nahiago dituzte.

Reich-ek elkarrekiko mendekotasunaz dioenaren arabera, haurrak lehenengo masajeak umetokiaren barnean bertan jasotzen ditu; ukitzailea, aldi berean, ukitua da.

Ukimena da garatzen den lehenengo zentzumena (Ashley Montabu), eta, halaber, komunikazio bitarteko nagusia haurrenentzat. Haur guztiek sumatzen dute ukituak eta mugituak izateko modua. Haurrak sen-



Ramon MADUIT
Psikologoa eta prebentzioan aditua

tsazio fisikoa lortzeko beharrezkoa den denbora hartzea gurasoek beren seme-alaba ezagutzeko modurik agerikoena da. Helduekin gertatzen den bezalaxe, pentsatzen eta sentitzen dugunaren zati handi bat gure eskuen bitartez adierazten dugu. Konfiantza eta segurtasuna modu irmo baina lasai batez helduz eta ukituz adierazten ditugu; aitzitik, segurtasunik eza eta antsietatea beso zurrunaz eta gogor helduz. Beren seme-alabekin ukimena garatzen eta kontaktu fisikoa lantzen duten gurasoek elkarrenganako aietasuna sortzen dute hasieratik beretik, eta askoz ere zailtasun gutxiago dituzte ttipitxoa baretzen. Beti daude haurrarekin ukipenean eta horrek segurtasuna, konfiantza eta mendetasunik eza ematen dizkio haurrari, eta hori bere nortasunean eta besteekiko harremanean islatuko da.

Masajeak zirkulazio eta immunologia sistemak suspertzen ditu, eta, halaber, bihotz taupadei, arnasketari eta digestioari laguntzen die. Haurtxoaren garapena suspertzen du eta, indartzen eta bere koordinazioa hobetzen doan neurrian, oreka ezin hobia ematen dio. Era berean, giharren elastikotasuna eta erresistentzia areagotzen ditu, jardunean dagoenean, nahiz atsedene-

an dagoenean, erlaxatuta egoteko gaitasuna hobetuz.

Haurtxoari maiztasunez masajea emateak hura hobeto ezagutzeko, nola dagoen jakiteko, eta ezerosotasuna, mina nahiz tentsioa sorrarazi ohi dioten gorputz atalak ezagutzeko aukera emango dizue.

Haurtxoa lau hankatan edo oinez hasten denerako, masajea ematen zertxobait jakitea oso baliagarria izango zaigu haurtxoak hartuko dituen kolpeak eta ikarak modu azkar eta eraginkor batez arintzeko.

Nola egunez, hala gauetz, txupeteak, manta bero eta leunek, eta haurrak besarkatzen dituen jostailuek beren balioa dute; baina, egia esan, giza ukipen bero eta xamurraren, eta haurrak beharrezkoa duen konpainiaren ordezkio eskasak dira.

Praktikarekin, masajea zuen seme-alabekiko ukipen premiak asetzen lagunduko dizuen eginkizun intuitiboa bihurtuko da. Gainera, haurren osasunari eta garapen fisiko zein emozionalari onura asko ekarriko dizkie.

Haurrak bere inguruarekiko izango dituen trukatzeko guztiak harremanen muskulatura ildaskatuan oinarrituko dira, eta horren arabera, gizakiak bere kortikalidadea egituratzen du (Arnold Cessel).

Muskulatura ildaskatu horretan, garapen batekiko bilakaera historiko osoa erakusten duen gihar babesa sortzen da. Wilhem Reich-ek garapen ontogeniko hori kontuan hartu zuen. Guk autoerregulaziorako eman zituen jarraibideak aztertuko ditugu.

Familia-ekosistema, oinarritzko prebentzioa, gorputzaren eskema, eta gorputz-kontrola aztertuko ditugu; hau da, psikomotritatearen oinarriak.

Ukitzea, sentitzea eta emaitza kokatzea landuko ditugu.

Ukitu + sentitu = Kokatu

Musika hezkuntzaren hastapenak herri kulturetan

Lekua: **Ekintza ikastolako plastika gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia 9:30</p> <p>Herri musika zer da? Berezko musikak izateko baldintzak. Haurtzaroko hots jostailu eta joko musikal batzuen aurkezpen orokorra.</p> <p>* Juan Mari BELTRAN. HM Herri Musikaren Txokoako arduraduna.</p>	<p>9:00</p> <p>Gure inguru naturaletatik hartutako materiala erabiliz hots jostailuak egin eta era musikal, entretenigarri eta sortzailean praktika batzuk egin.</p> <p>* Juan Mari BELTRAN.</p>	<p>9:00</p> <p>Hots jostailuekin jarraitu. Herri Musikaren Txokoan bisita gidatua. Euskal Herriko eta munduko beste tokieta-ko soinu tresnak ezagutu. Berezkotasuna eta uniberteltasuna herri kultura eta herri musikaren osagaiak.</p> <p>* Juan Mari BELTRAN.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Musika hezkuntzaren hastapenak herri kulturetan



Beste arloetan bezala, herri kulturak musika ikasteko bideak jartzen dituzte. Sistema horiek belaunaldiz belaunaldi osatu eta transmititu egin dira. Hasieratik, loarazteko kantuek, musikarekin egindako lehen jolasak eta hots jostailuak izan dira jaiaberriak zuzen-zuzenean musika informazioa jasotzeko izan dituen tresnetako batzuk.



Juan Mari BELTRAN
HM Herri Musikaren Txokoako arduraduna

Gaur egun, eta batez ere mendebaldeko herrialdeetan, kulturaren zabaltze sistemak asko aldatu dira. Jadanik desagertu dira belaunaldien arteko komunikazioa ahalbidetzen zuten baldintzak. Egun, informazioa beste bide batzuetatik jasotzen da (idatzia, irratia, telebista, musika grabazioak...) eta ugariagoa eta zabalagoa da, nazioaren mugak berberak ere gainditzen dituelarik.

Horren eraginez, besteak beste, musikan itxura estetikoak gero eta uniformeagoak bihurtu dira. Eta horrekin batera, herriaren parte-hartze aktiboa eta zuzena ere gutxitu egin dira. Horregatik, azkenaldian hainbat eta hainbat musika hizkuntza berezi galdu egin dira, eta horrek eragin du herri askotako ondarearen hain atzerakada nabarmena.

Bizitzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko erak izan dituen aldaketak galerak ekarri ditu aurreko ohiturekin loturiko zenbait elementu kulturalen eraginkortasunean (hala nola dantzetan, abestietan eta, nola e,z horiei bizitza ematen zieten soinu tresnetan).

Musikan jadanik lehenengo urratsak ez dira zuzenean ematen, lehen bezala, ahotsak eta inguruko soinu-tresnak entzunez.

Sehaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatuzko erabiltzen ziren abestiak, disko eta kasete komertzialek baztertu dituzte.

Gaur egun, gure inguruan, haurrak ez dira garai batean bezala, ama-amonaren besoetan hazten.

Ama-amonaren besoetan hazi den haurrak, zuzen-zuzenean entzun dituen kantuen bitartez, bestela lortuko ez lukeen zenbait balioaren garapena lortzen du (intonaziorako, erritmorako,

dantzarako... gaitasuna). Hori guztia, abasterakoan egiten diren gorputz mugimenduen, kanatu monodiko edo polifonikoen eta abarren bitartez lortzen da. Nabarmena da, hau guztia mantentzen den herrietako haurren musikarako ahalmena handiagoa dela. Gure inguruan galdurik dago, eta horrek haurren duen eragin ezkorra argi ikusten da.

Haur jolasak ez dira parte-hartzaileek abesturiko doinuen bidez egiten. Jadanik ez da egiten erritmo, tinbre eta linea melodikoak ezagutzen hasteko soinuak jostailurik. Aldaketa horiekin batera galerak jasan dira psikomotrizitatearen eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materialen eta beren soinu ezaugarrien eta soinu tresnen erabileraren ezagutzan.

Gazteek, berriz, ez dute, lehen bezala beren festa eta bileratxoetan abesten; orain, gehienetan, grabaturik dagoen musika entzutera mugatzen dira.

Garbi dago transmisio sistemak asko galdu direla. Orain eskola da funtzio hori betetzen duen gune nagusietako bat. Horregatik, irakasleek gure herri kulturaren alde hau ongi ezagutu beharko lukete.

Horixe da, hain zuzen ere, ikastaro honen helburua. Gai hau era zabalean ezagutarazte, eta bereziki, hots jostailuak: nola egin, nola erabili, bakoitzak eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta zein helburu (musikala, psikomotrizitatea, landaren bizitzaren ezagutza edo bestelakoak) lor ditzakegun jakin.

Hots jostailuak

Hots jostailuek hainbat funtzio garrantzitsu bete dituzte eta betetzen dituzte munduko herrietan eta haurren hezkuntzan.

Jolastea eta entretenitzea izan da hots jostailuek bete duten funtzio horietako bat. Irudimena eta sormena lantzeko benetan oso tresna egokiak dira.

Gorputzaren psikomotrizitatea eta trebetasuna lantzea da beste funtzio bat. Hots jostailuak erabiltzerakoan, eskuak, hatzak, arnasketa eta gorputzaren beste zatiak era egoki eta koordinatua erabiltzen ikasten da. Zein hots jostailu erabiltzen den, era bateko edo besteko mugimenduak egitea eskatzen du; igurtzi, kolpatu edo astindu. Haize tresnak badira, hori guztia arnasketa egokiarekin koordinatu beharko da.

Herri kulturetan hots jostailu asko urtaroz urtaro inguruan lurrak emandako landare eta fruituekin egiten dira. Horrela, hots jostailu bakoitza dagokion garaian egiten eta erabiltzen da, eta beste garaietan ezin da. Urtaro barnean, kontuan hartu behar da ilargiak landareengan duen eragina. Bide batez, hots jostailuen bidez, eguzkiaren eta ilargiaren zikloak ezagutzen dira, eta baita landareek urtean zehar egiten dutena ere. Udaberrian esnatu eta ilgoran izerdiak sustrietatik gora jotzen duenean, makila azalekin egiten diren zenbait txilibiten garaia da. Udan zenbaiten fruitu eta zuztarrekin egiten direnak. Udazkenean, fruitu lehorrekin edo arto makilekin. Eta neguko ilbeheran moztuko dugu hamaika motatako txilibita eta turutak egiteko kanabera.

Baina hots jostailuek betetzen duten funtzio nagusietako bat musikarekin loturik dago. Horien bidez, benetako soinu tresnak nola funtzionatzen duten ikasten da, zeren kasu gehienetan jostailu hauek soinu tresnen prototipoak baitira eta guztietan hauek bezala sailka baititzaiegarri beraien ezaugarri akustikoen arabera. Bestalde, musika era aktibo eta sortzailean egiten da, esaldi erritmikoak eta melodikoak egin.

Gustura irakurtzea

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 1.7 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none">- Ahozko narrazioa, ikaskuntzarako esperientzia bizia.- Prozesu narratiboan gogoan hartu beharreko elementuak: espazioa, taldea, saioaren egitura, sintonia, hitza erraminta bizi bezala, jolasa.- Haurtzaroko lehen urteen garrantzia. Haurrentzako hitz-jokoak, abestiak, errimak... euskaraz.- Ipuinen mundura hurbiltzen: Sara C. Bryant, Azkue, Barandiaran, Andersen, Grimm...- Euskal idazleen ipuinak eta kritikaren eragina.- Nola piztu haurrarengan irakurzaletasuna.- Nolako irakurketak eskain ditzakegu? Eredu batzuk.		
<p>* Pep TORT. Kataluniako ipuin kontalaria. * Iñaki ZUBELDIA. Idazlea eta Hizkuntzaren Pedagogian lizentziatua.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Ahozko narraziotik abiatuta pozik eta gustura irakurtzera

Izenburuak dioten bezala, ahozko narrazioa eta ahozko hizkuntza izango dira haurra hizkuntzarekin eta sorkuntza literario eta poetikoarekin zaletzeko erabiliko ditugun bitartekoak.

Hasieran haurrak maitasun komunikazio bat nabaritzen du gurasoen eta familiako beste kideen aldetik eta badaki komunikazio hori laztan, musu, besarkatze eta kontaktu fisikoaz haratago zabaltzen dela, hitz solte, esaldi labur, onomatopeia, errima goxo eta haur kanta ezti eta samurretara hedatuz.

Komunikazio hasiera berezi hau oso atsegina eta pozgarria da haurrentzat. Hasieran entzun egingo ditu maitasunez esaten zaizkion hots goxoak, baina gero bera ere subjektu aktibo bihurtuko da, antzeko hotsak eta doinuak sortzen ahaleginduz. Lehenengo hotsak ahoskatzen hasten denean, zerbait ulertzen diotela konturatzen bada, haurrak izugarritzko garaipena eta poza sentituko du, ahozko komunikazioa ezartzeko gai dela sentitzen hasiko baita...

Pixkana-pixkana entzungo dituen hitz jokoak, aho korapiloak, abestiak... ikasten joango da eta hau dena beretzat atsegin iturri agortezin bihurtuko da.

Hona hemen hainbat eta hainbat hitz joko: Etorri gara txin, anglo manatxin..., Honek txotxak bildu..., Arre, arre, mandako..., Txintxilin bonba..., Eragiozu esku-txoari..., Akerra burdu-burdu..., Behin emen zan zantar bat..., Arriola, marriola, kin, kuan, kin..., Bilin bolo bolaixo...,



Iñaki ZUBELDIA

Idazlea eta Hizkuntzaren Pedagogian lizentziatua

Xixixli putxili..., Xia, xia..., Baga, biga, higa..., Haurtxo txikia sehaskan dago...

Haurrak hitz egiten ikasten duenean hainbat kanta-istorio ere abesten zaizkio: Bat eta bi, hiru eta lau..., Elurra mara-mara ari du..., Dira, dira, zezenak dira..., Arre-erre, zalko-zalko..., Pintto, Pintto..., Uztaiak gora gora..., Jon Brown..., Txantxibirin, txintxibirin...

Kanta hauek ipuin oso laburrak ere badira, barruan istorio xume bat baitaramate. Eta hemendik modu naturalean egin daiteke saltoa ipuin labur eta errazetara. Eta hauetatik ipuin miresgarrietara: Txanogorritxu, Errauskine, sorginak, Tartalo, lamiak, jentilak... Oso baliagarri izango zaizkigu Perrault, Grimm, Andersen, Barandiaran, Azkue, Satrustegi eta beste hainbat biltzailek jasotako herri-ipoinak eta kondairak.

Gero, badaude hain klasiko izan gabe

euskal idazleek idatzi dituzten ipuin zoragarriak. Eta hauek ere haurren eskura jarriko ditugu aurreiritzirik gabe. Eta hemen kritikaren eragin negatiboa saihestu behar dugu, hainbat eta hainbat autore eta lan bikain baztertuta geratzen baitira kritika ofiziala eta irakasle axolagabe batzuk direla medio. Haurrari eskaintza zabala eta anitza emango diogu, haurrak berak osatu behar baitu irakurketarako bere gustu propioa.



Ahozko narrazioa, ikasketaren esperientzia bibentziala

60ko hamarkadaren amaieran Irakasle ikasketak egiten ari nintzen eta Hizkuntza ikasgaiarako lan bat egiteko ikastetxe bateko gela bateko hurrei ipuin bat kontatu behar nien. Esperientzia oso atsegi-
ra izan zen niretzat, entzuleak narrazioan murgildurik egon baitzi-
ren, hitzen eta keinuen bulkadei erabateko arreta jarrita.

Beranduago irratian esperientzia bera bizi izan nuen, egunero ipuin bat kontatzen bainuen irrati kate batean edo batzuetan, edota Servei d'Ensenyament del Catalá-
rentzat (SEDEC) hizkuntz normalkuntza kanpainen lan egiten nuenean.

Gaur egun "ipuin kontura bizi naiz"; irakasleei grabatu, idatzi eta hitzaldiak eta ikastaroak ematen dizkiet eta eskoletan, liburutegietan, antzokietan eta abarretan saioak egiten ditut.

Ikastetxeetan narrazioa zikloka lantzeko aukera izaten dut, hau da, saioa bere forman eta mamian eta bere garapenean eta edukie-
tan antolatuz, betiere haurren adina kon-
tuan izanik.

Ipuinak kontatzeko modu ugari daude eta helburuak ere askotarikoak dira. Ni, eta agian irakasle naizelako izango da, gustura gelditzen naiz arreta jartzea eta aldi berean komunikatzea eta ereitea lortzen badut. Medikuei batek zioen bezala: "entzuleari bihotzeko edo adimeneko txertaketa bat egiten diot".

Narrazio prozesu batean ezer ez da doan, eta horregatik, beharrezkoa da puntu haue-



Pep TORT
Kataluniako ipuin kontalaria

taz mintzatzea:

- Espazioa
- Taldea
- Saioaren egitura
- Sintonia
- Hitza tresna bibentzial bezala
- Jolasa
- Ekintzaren amaiera

Helburuak

Xedea da ahozko narrazioaren saioetan forman eta mamian sakontzea haurren adinaren arabera:

- 3-4-5 eta 6-7 urte: ahozkotasunaren protagonista izatearen plazera.
- 8-9 urte: entzuteko gustuan parte hartzea.
- 10-11 urte: balio ludikoaren eta hitzaren ikasketaren lekuko izatea.
- Narratzailea espazioan definitzea eta kokatzea (hitza erreminta bezala).

- Taldea espazioan definitzea eta kokatzea (saioan publiko aktiboa).
- Adin eta saio eredu bakoitzari dagokion dinamika egokitzea.
- Ahotsa lantzea narrazioan sartutako eredu espresiboak imitatuz.
- Keinuren bidez arreta bereganatzea.
- Keinua, ahotsa eta espresioa uztartzea.
- Narrazioa edo ipuina adinaren eta saio motaren arabera aukeratzea.

Metodologia: bizituz esperimintatzea gero teorizatuz justifikatuko duguna.

Ipuinak kontatzeko modu ugari daude eta helburuak ere askotarikoak dira. Ni, eta agian irakasle naizelako izango da, gustura gelditzen naiz arreta jartzea eta aldi berean komunikatzea eta ereitea lortzen badut.

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com



hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

30 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

Literatur txokoa

Koordinatzailea: Xabier Mendiguren

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.6 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian: - Ramon Saizarbitoria</p> <p>Saizarbitoriaren obra, baina batez ere azken aldikoa, aztertuko da: kontaketa abentura eta abenturaren kontaketa, ironiaren erabilera eta beste hainbat alderdi jakin-garri.</p> <p>* Mari Jose OLAZIREGI. Filologian doktorea eta EHUko irakaslea. * Lurdes OTAEGI. Batxilergoko institutuko katedraduna.</p>	<p>9:00</p> <p>- Gabriel Aresti</p> <p>XX. mendean euskal literaturan iraultzarik handiena ekarri zuen poetaren ekarpena zertan datzan ikusiko dugu: haren hizkuntza, poesi-bideak, sentiberatasun berezia, bizirik iraunarazten duen gaurkotasuna.</p> <p>* Iñigo ARANBARRI. Idazlea, Filologian lizentziatua eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea. * Koldo IZAGIRRE. Idazlea edo gidoigilea.</p>	<p>9:00</p> <p>- Xabier Montoia</p> <p>80ko hamarkadan euskal poesiari berri- on bat eman zion ("Anfetamiña" eta beste), eta 90etik gaur arte euskal kontalari sendo- netakoa bihurtu da Montoia, bai ipuinlari bai nobelagile moduan.</p> <p>* Harkaitz CANO. Idazlea. * Edorta MATAUKO. Itzultzailea, eus- kara eta literaturako irakaslea IRALEn.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Ramon Saizarbitoria

Ikastaro honen lehen egunaren helburua Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintzaren bilakaera aztertzea eta zenbait testuren irakurketa gaurkotua egitea da.

Hasteko, testuingurua eta biografia zertzeladak ikusiko ditugu, eta era berean, egilearen poetika eta bilakaera literarioa ezagutuko ditugu.

Obra eta ezaugarriak

Jarraian obra osoaren aurkezpenak egingo dira honako bi etapetan banaturik:

1. **70eko hamarkadako eleberrigintza:** *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1976) eta *Ene Jesus* (1976).

2. **90eko hamarkadako narratiba.** *Hamaika pauso* (1995); *Bihotz bi: Gerrako kronikak* (1996); *Gorde nazazu lurpean* (2000) eta *Kandinskyren tradizioa* (2003).

Testu azterketak

Obra osoak ikusi ondoren, Saizarbitoriaren bi lanen testu azterketak egingo dira:

1. *Asaba zaarren baratza*: irakurketa literario eta ideologiko-sinbolikoa.

2. *Rossettiren obsesioa*: irakurketa konparatu eta psikoanalitikoa.

Bibliografia

- Olaziregi, M.J.: *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, Labayru, Bilbo, 2001.


- Otaegi, L., "Asaba zaharren baratzaz orainik. R. Saizarbitoriaren *Gorde Nazazu Lurpean* irakurtzeko modu bat" in *Egan*, 1-2 (2002), 59-79, eta "Escenarios literarios" in *Cuadernos de Alzate* (2002), 137-164.



Mari Jose OLAZIREGI
EHUko irakaslea



Lurdes OTAEGI
Batxilergoko Institutuko katedraduna



Gabriel Aresti

Testuinguru historikoa

1950eko eta 1960ko hamarkadak:

- Egoera soziala
- Hizkuntzaren egoera
- Gerraondoko joera literarioak
- Bilbo eta bertako zirkulu literarioak
- Garai haietako azpiegitura literarioa:

Eusko Gogoa, Olerti...



Iñigo ARANBARRI

Idazlea, Filologoian lizentziatua eta
Bigarren Hezkuntzako irakaslea



Koldo IZAGIRRE

Idazlea eta gidoigilea

Gabriel Aresti euskaldunberria

- Bilbo euskal literaturan ordura arte.
- Gabriel Arestik euskaldun izan nahi du: bakardadea, liburuak.
- Euskaldunberriaren bertsolarienganako miresmena.

- Gabriel Aresti euskara batuaren aitzindari: intuizio linguistikoa.

- Arestiren lanak eta haserreak Euskaltzaindian: batuaren inguruko eztabaidak.

Arestiren mandatua

Literatura bat bersortu beharra:

- Artikulugintza
- Hitzaldiak
- Abestiak
- Antzerkiak
- Eztabaida literarioak/Basarri

Gabriel Aresti poeta

- Maldan Behera
- Bizkaitarra
- Harri eta Herriren interpretazio baterako: simbolismotik errealismora
- Harriaren zikloa

Munduaren neurria

Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako munduaren neurria.

Barka bezaidate.

Nork bere begiekin ikusten ditu gauzak.

Eta nork diost niri Laudioko kanpandorreak ezta kusala? Nork?

Nire buruaz mintzatu behar dut, hura delako (ni naizelako)

hobekien ezagutzen dudana.

Nire bularra labirintu bat da, dedalo bat, eta bertako kale kantoi guztiak ezagutzen ditut.


Bertatik ibiliko naiz nola komodatik ohera, arimaren begiak itsutzen dizkidaten egunean ere.

Dena dela, ni naiz mintzatzen naizena, eta mundua diot,

nire zihorraz neurtu behar dut mundua, beste neurririk ezin baitarabilkit.

Nire bularraren gainean zer dagoen, hori bakarrik jakin nahi dut.

Mintzatzen naiz nire buruaz.





Xabier Montoia

Hogei urte bete dira aurten Xabier Montoiaren lehen liburuak argia ikusi zuela. *Anfetamiña* (1983) poema liburuak ildo berriak ireki zituen hizkuntza zuzena eta urbanoa euskal poesiara ekarri zuten ahaleaginean. Garai hartako editoreek argitaratzeko ausardiarik izan ez zutenez, Susa aldizkariak liburuak ateratzeko erabakia hartu izanaren erudun nagusia ere izan zen liburu hau.

Poesiaren bidetik etorri ziren Montoiaren lehen lanak (*Anfetamiña* liburuari *Likanthropo* eta *Narratzen mintzoa* bildumek jarraitu zituen). Bere liburuei izenburu zorrotz eta erakargarriak jartzen dizkien autore baten aurrean gaude. Komunikatzeko gaitasun hori literaturan ez ezik musikan ere garatu du Montoia, Hertzainak taldearen hastapenetan izan baitzen, bere proiekturik pertsonalenak M-ak taldean nahiz bakarka egindako diskoetan ondu baditu ere. Letragile eta musikari bezala egindako ibilbideak izango zuen, ziur aski, eraginik bere poesian, berak noizbait kantuen letrek eta poemek zerikusirik ez dutela aipatu duen arren.

Azken urteotan ordea, prosara lerratu da Montoia. *Non dago Stalin?* (1991) nobela-komikiaren tradizioetik asko edaten zuenaren izan zuten estreinako lana narratiban. Salmentetan *best-seller* kalifikazioa lortu zuen lehen euskal liburuetakoa izaki, aske zebilen Montoia liburu horretan, kanon literario tradizioaletatik urrun eta haiei barre eginez ere bai, esango genuke. *Emakume biboteduna* (1992) ipuin bilduma inflexio puntu inportantea izan zen. Liburu horretatik aurrera, bere literatura aintzakotzat hartu ez zuten askok aitortu zuten kontatzeko



Harkaitz CANO

Idazlea

istorioak izateaz gain, istorio horiek nola kontatu bazekien norbait zegoela luma haren atzean. Ez dira ipuin gozoak, ez. Zikinak dira. Zartadak ematen dituzte eta mingarriak dira tarteka, literatura anglosaxoniarretik eta bereziki tradizio amerikarretik edaten duten istorioak. *Emakume biboteduna* liburuan ale ederrik baldin bazen, bost urte beranduago lortuko du bere ipuin bildumarik koherente eta -agian- ederrena: *Gasteizko hondartzak*. Geroztik, eta liburu honen ildotik, etorri da *Baina bihotzak* dio ipuin bilduma -Montoia samurrago bat topatzen dugu azken urteotan, ez otzandua baina bai epeltasun printza bat ematen die-na bere idatziei-.

Nobelak ere jorratu ditu, oso diferenteak jorratu ere: *Hezur gabeko hilak* (1999) Gerra Handian kokatutako soldaduen istorio minimalista bezain efektiboa (amerikarrek hain landua, hemen hain estilo ahaztua) eta baita Hanif Kureishi bezalako autoreen bide bertsuan egon daitekeen *Denboraren izerdia* bere azken nobela ere, erabat garaikidea eta euskal soziologiaren nahiz bikote harremanen erradiografia gupidagabea



Edorta MATAUKO

Itzultzailea, Euskara eta Literaturako irakaslea IRALEN

dena. Denak ezin eta, narratibari dagokionez, ipuingintzari lotuko gatzazkio bereziki, eta gehiago zehaztuz, *Gasteizko hondartzak* liburuari erreferentzia eginez batez ere, ipuin ederrak izateaz gain, liburu bilduma batek nola izan dezakeen batasun bat -monotono izan gabe- erakusten duen adibide zoragarria den heinean.

Aukera izango dugu, halaber, bere lan poetikoaren sintesi gisa, azken aldiko argitaratu gabeko zenbait olerki ezagutzeko, baita bere kantagintzaren ale batzuk entzuteko ere.



Idazkera "txarra"? Ez, eskerrik asko

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 0.4 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eroso idazteko aurrebaldintzak ezagutzen (ezkertientzat eta eskuientzat): <ul style="list-style-type: none"> + aulkia, mahaia, gorputz jarrera, orria, idazteko tresna... - Grafomotrizitatea. Zer da ezagutzea. <p>* Iruñe IBARRA. Psikologoa eta grafoloia. EHUko irakaslea. UEU kidea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idazkera harmonikoen ahalbidetzen dituzten parametroen azterketa: <ul style="list-style-type: none"> + letren forma, orriaren antolaketa, letren neurria, letren arteko lotura, makurdura, lerroen norabidea, presioa, abiadura... orekatuenak. <p>* Iruñe IBARRA.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idazkerak "txar" bilakatzen dituzten elementuak identifikatzen. - Idazkera "txarrak" bideratzeko tresna eraginkorrak barneratzen. <p>* Iruñe IBARRA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Idazkera “txarra”? Ez, eskerrik asko



Ikastaro honetan gustura eskuz idazteko baldintza egokienak zein diren zehaztuko dugu: mahai eta aulkien berezitasunak, orriaren posizioa adinaren eta ezkerre edo eskuina izatearen arabera, gorputzaren jarrera atalez atal (sorbaldada, besagaina, ukondoa, eskumurrak), idazgailu motak eta hauek eroso heltzearen garrantzia. Idaztearen ekintzan parte hartzen duten osagai horiekin era harmonikoan eta ergonomikoan zelan jokatu azalduko da.




Irune IBARRA

Filologoa, grafologoa, EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Ikastaro honetan gustura eskuz idazteko baldintza egokienak zein diren zehaztuko dugu

Ondoren, idazkera “txarrak” aurrehartzeko grafomotrizitatea lantzearen garrantziaz ariko gara. Eskuaren eta begiaren koordinazioa, formaren konstantzia, atzamar-eskuen lantzea, erritmo grafomotorea... hori guztia eskolaurtean eta 8 urte ingurura arte jorratzea funtsezkoa da haurrak idazketa era erosoan lor dezan.

Idazkera harmonikoak ahalbidetzeko oso garrantzitsua da letren arteko loturak zelan egin irakastea, espazioen antolaketaren esanahiaz konturatzea, lerroen horizontaltasuna barneratzea... Harmonia ikusi eta gero, harmonia hori apurtzen duten elementuak identifikatuko ditugu: idazkera oso txikiak, irregularrak, zikinak, desordenatuak... dira idazkera “txarrak”. Horietako bakoitzak zergati eta konponbide berezia dauka. Kaligrafiarik egin gabe nola bideratzen diren ikusiko dugu gardenki eta bideo bidez.



Ahozko hizkuntzaren trebaketa prebentiboa

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 0.1 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <p>- Ahozko Hitzaren Askabidea</p> <p>1. Mintzaketa Programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Uztartze jolasak: hizkuntza emozionala - Antolatze jolasak: hizkuntza funtzionala - Argudiatze jolasak: hizkuntza arrazionala <p>* Aitor ZENARRUZABEITIA. Irakaslea, logopeda eta psikomotrizista.</p>	<p>9:00</p> <p>- Ahozko Hitzaren Onurabidea</p> <p>2. Arnasketa Programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sudur-airezatze jolasak - Birika-oxigenatze jolasak - Masajea eta Erlaxatze jolasak <p>3. Entzuketa Programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Isiltze jolasak - Arreta eta entzute jolasak - Hots-bereizte jolasak - Entzumen oroitze jolasak <p>4. Ahosketa Programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolas fonoglotikoak - Mihi, ezpain eta masailezurrerako Glotisgaineneko jolasak - Ebakitze jolasak: - Bokalezko sistema - Kontsonantezko lehen sistema - Kontsonantezko bigarren sistema - Talde fonikoak <p>* Aitor ZENARRUZABEITIA</p>	<p>9:00</p> <p>- Ahozko Hitzaren Egiturabidea</p> <p>5. Hitzegiaren eraketa programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izendatze jolasak - Jorratze lexiko-semantikozko jolasak - Kontzeptu argitze jolasak <p>6. Hitzaldiaren josketa programa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narrazio-testuinguratze jolasak - Morfosintaxi-testualizatze jolasak <p>* Aitor ZENARRUZABEITIA</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Ahozko hizkuntzaren trebaketa prebentiboa

Jolas-tailer praktiko honetan sartu bezain laster ziur gauza batek harrituko zaituela: irakasleak ez duela hitz egiten. Ikastaroz nahastu zarela inuituko bazeazu ere, murgilduta aurkituko zaren komunitazio giro dinamiko eta erakargarriak geratzera bultzatuko zaitu eta zergatik ere argituko dizu: ahozko hizkuntzaren %65 ez delako ahozkoa.

“Mutua”ren fama irabazteaz gain, zer ondorio dakar estrategia didaktika honek eskolan? Batek haiek ere isiltzen direla. Beno, aldi bereko itzultzailearen bat salbu: altxatzeko esan du... Bestetik gorputz semiotika areagotzen dela: begiradaz, jarreraz, mugimenduz, mimikaz... elkar komunikatuz. Hau lasaitasuna haur isilen eta gero eta gehiago datozkigun atzerritarrena! Dena ulertzen dute. Ulermena ari gara lantzen.

Zuzenketa analogiko hau, gainera, oso eraginkorra da: keinuz, piktogramen bidez, gitarraz edo bloke logikoz praxiak kodifikatuz eta taldegramez baliaturik, berehalaxe geratzen da muntaturik *sozioegitura interaktiboa*, hizkuntza hazteko laborategia, beraiek ere txandaz zuzen dezaketena.

Alabaina, trebeki mintzatzeko, sabeletik aho-ara hitzak dagien neurobidea onuratu beharrean gaude, hots, *neuroegitura logopediko prebentiboa* gelarik gela 3 urtetik 7 urtetara egunero eta sistematikoki jorratu. Lau geltoki ditu ahozkotatuenaren %28 hartzen duen neurobidaia honek.

1- Arnas mekanismoa eta aireztatze neuroegitura. Jaio eta lehendabizi pizten zaigun mekanismoa da, harrezkero automatikoan jarri eta gutxi zaintzen duguna. Badugu, alabaina, alor honetan premiazko zereginik. Lehena higieena: zenbait jolas egingo ditugu sudurra maitatzeko eta garbi mantentzeko. Bigarrena sudur arnasa eta sabeleko arnasa menderatzea.



Aitor ZENARRUZABEITIA
Irakaslea, logopeda eta psikomotrizista

Horretarako erlazazioa kontaktuan landuko dugu batik bat, oso jolas bitxiak gozatuz. Hirugarrena putz egitean trebatzea da fonemak ongi aiereztatzeko. Benetako zirkoa muntatzen da honekin, materialek (turretak, burbuilak, txilibituak, haizagailuak...) hartara eramaten gaituztelarik.

2- Ahots mekanismoa eta neuroegitura fonikoa. Mundu zirrargarria da ahotsena. Ahoa itxiz (MMMM) eta aho irekiz (AAAA) fonobibrazioa orekatuko dugu burezurak bat eginda, edo talde baten erdian kulunka edota dutxa foniko bat jasoz. Era berean, eta beti jolas interaktiboan bidez, ahotsaren kokapena arakatu dugu; kokapen propiozeptiboa gorputzean (inpostazioa) eta kokapen esterozeptiboa espazioan (proiektzioa). Honen ondorioz ahots modulatu eta erakargarria izango dute gure haurrek eta, bide batez, guk geuk irakasleok.

3-Ahoskatze mekanismoa eta neuroegitura artikulatua. Hauxe dugu, beharbada, gehien kostatzen zaigun trebezia. Funtsean, hitzak ebakitzea ahoari mugak jartzea baino ez da eta egungo familiok ez ditugu egiturazko mugak erabiltzen, ez omen dakigu ezetz esaten. Testuinguru permisibo honetan aerobic bizkorra eskaintzen diogu guk mihiari, ezpainei,

masailezurrari eta masailei. Tonizitate ona (eutonia) hartzeko aurpegi masajea landuko dugu binaka material desberdinekin (hatzekin, kremarekin, lastotxoarekin, pintzelarekin...). Oroitzeko eta gurasoak ere implikatzeko praxia-ipuina eta praxia-irudiak eskainiko dira.

4- Entzun mekanismoa eta neuroegitura akustikoa. Haurrak bizi duen asetzakustikoa –normalean 7.ean egiten digu kasu- deskolokatu egingo dugu feltrozko mozturroak jantzita soinu iturriak kokatuz, bereiztuz eta sekuentziatuz. Radarraz bilakatuko gara, isiltasunaren jabe izaki. Ondorioz, belarri fina izango du haurrak hizki-kateekiko, ezinbesteko trebezia, ongi dakigunez, dislaliak disortografiak ez akatzeko.

Arraioa! Hainbeste txorakeria analogikoren ondoren propio hitz egiten hasiko ote gara, bada? Hitz digitala nahi dut nik, %7a. Lasai, ikastaro honetan ere hitzontziak bilakatuko gara ahozko talde dinamika barra-barra praktikatuz.

Lehenik *elkar ezagutzeko jolasak* egingo ditugu, hizkuntz afektibo-emozionalaren poderioz elkarren arteko harremanak uztartuz. Mintzaera mota berezi hau *mintzaira hunkiorra* deitzen da.

Bigarrenik *elkarrekin jarduteko jolasak* egingo ditugu hizkuntz operatiboa dela medio auzolane-ko ekintzak antolatuz. *Mintzaira eraginkorren* aurrean gaude, eguneroko eskuzko betebeharr kooperatiboak erregulatzen dituen.

Eta hirugarrenik *elkar eztabaidatzeko jolasak*, hizkuntz formala edo kontzeptuala (honen espe-roan nengoen ni, alafede) bermatzen dutenak, elkarren aurkako argudioka arituko garelarik. *Mintzaira arrazokorra* dugu hau, gure barne lanabes mentala. Askok *mentális* deitzen dutena.

Eta irakurri baino, hau dena bizi nahi bazenu, ongi etorria. Ea denon artean frogatzen dugun ahozko hizkuntza, giza hizkuntza naturala, eskolako arlo guztien euskarri eta lanabes dugula; harremana, jarduera eta pentsaera egituratzen duena, eguneroko bizitzan bezalaxe.

Heriotza heziketan: galerak zentzu hezitzailean

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 1.1 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia</p> <p>Jarraian: Doluaren prozesuaren eskema. Dolu normala, dolu patologikoa. Doluaren bilakaera onuragarri baterako elementu etentzaileak eta erraztaileak (edo gomendioak). Bizipenezko ariketa praktikoren bat edo besterako astia ere hartuko dugu.</p> <p>* Maria Antonia PLAXATS. Psikoterapeuta. Kataluniako "Rosa Sensat"eko kidea (<i>Gaztelaniaz</i>).</p> <p>Arratsaldez, 16:00etan:</p> <p>Tailer praktikoa: Hezitzailea dolu eta galera egoeren aurrean. Krisi egoeretan hezitzaileak izan dezakeen papera bizitzen lagundu ahalko diguna.</p> <p>* Maria Antonia PLAXATS.</p>	<p>Goizez, 9:00etan: Dolua bezain gai bereziari heltzerakoan zein izan beharko lukeen guraso eta hezitzaileen papera aztertuko dugu: hezkuntza ildoak, mitoak eta sinesmen faltsuak, krisiari aurre egiteko errekurtsoak, taldelana, adinkako garapen kognitiboa eta galerak onartzeko gaitasuna. Zenbait kasu praktikoko landuko ditugu era parte-hartzaile eta dinamikoan.</p> <p>* Patxi IZAGIRRE. Psikoterapeuta. Ekintza ikastolako psikologoa.</p> <p>Arratsaldez, 16:00etan:</p> <p>Tailer praktikoa: Agurrak egoki lantzearen garrantzia. Geratzen diren kulpa sentimenduak garbitzeko eta amaitu gabe geratu diren kontuak bukatzeko egin daitezkeen saiakerak lantzeko ariketa praktikoa.</p> <p>* Patxi IZAGIRRE.</p>	<p>Goizez, 9:00etan: Kasuen azterketa. Nola esku-hartu heziketa testuinguruan. Desbideratze protokoloa.</p> <p>Beste galera mota batzuk eta beraien erabilera emozionala: banaketak, agurrak... Adin txikikoaren garapen ebolutiboan duen eragina eta krisiei aurre egiteko bitartekoak sortzeko beharra.</p> <p>* Patxi IZAGIRRE.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Bizitzarako hezi: galera, heriotza eta doluaren pedagogiarantz

Hirugarren aldiz zuen artean egongo naiz Hik Hasiren Udako Topaketak direla eta. Oraingoan ere oraindik orokorrean, eta hezkuntza arloan ere bai ondorioz, zailtasun handiak dituen gai baten inguruko hausnarketa egitera animatu nahi zaituzte.

Galera esanguratsuen aurreko dolu prozesuen gainean hausnartzen jarraituko dugu. Galera orokor horien artean heriotzak leku berezia hartu ohi du.

Ez da gauza berria onartzea gaur egungo mendebaldeko gizartearen oraindik zaila suertatzen zaigula **haurrei eta nerabeei** doluan laguntzea.

Zergatik lantzen da sexualitatea hezkuntzan eta ez galerak eta heriotza? Balioak, jarrerak, sentimenduak, sufrimenduaren inguruko ekintzak, galera, heriotza edo dolua oso gutxi aztertzen dira giza errealitateko beste dimentsioekin alderatuz gero. Pertsonen arteko harremanetan eragiten duten sustrai humanistikoko zenbait ikasketetako curriculumetan alboratu egiten dute. Esate baterako **magisteritzan, pedagogian, psikologian, psikopedagogian...**

Gure lan taldea ikuspegi holistikoan oinarritzen da; mundua ulertzeko ikuspuntu global eta integratzailea da. Sistema biologiko, psikologiko eta sozial guztiak elkarren artean lotuta dauden



M. Antonia PLAXATS

Psikoterapeuta eta "Educar para la vida, educar para la pérdida, la muerte y el duelo en la escuela" mintegiaren koordinatzailea Rosa Sensaten

azpistemekin osatuta daudela ulertzen du, eta guztiek zatien batuketa baino handiagoa den osotasuna osatzen dute. Ikuspegi hori gure gaira egokituz zera esan nahi du: pertsona batek galera bat sufritzen duenen, bere adina dena delako izanik ere, normalean bere dimentsio guztietan eraginda gelditzen dela.

Galera: zergatik sentitzen dugu hainbeste galera? Gizakia erlazioan egiten da eta afektibitate maila desberdina duten loturak sortzen ditu, zeinak aldi berean loturaren balorazio positiboa edo negatiboa inplikatzeko duen. Balorazioa aldagai arrazionalen, emozionalen eta soziokulturalen multzo batean oinarritzen da. Horrela, zentzu subjektiboan galera bat dauka-

gunean mina sentitzen dugu. Gogoaren mina da, eta beraz, hunkiberatasuna: tristura, beldurra, culpa, haserrea, inbidia...

Modu horretan, kontzienteki edo inkontzienteki, pertsona batek galera baloratzen duen dolu horretara iristen gara. Doluaren prozesuan galera baten aurrean bat-batean gara daitezkeen prozesu arrazionalak, emozionalak, erlaziozkoak eta izpiritualak aurkitzen dira.

Noski, beharrezkoa da dolua konplikatzea ekiditea, eta horregatik, pertsonalki gure taldean **doluaren eraldaketa osasuntsua** deitzen diogu horretara bideratu behar dugu. Zauri hunkigarria orbaintzeko bitarteko egokiak jartzea esan nahi du horrek.

Era berean, galera esanguratsu bakoitza eraldaketa sortzaile baterako aukera izan daiteke, prozesuan dauden aldagai biopsiko-sozialak integra baldin baditzaizkegu.

Hil ala biziko garrantzia duten beste gauzekin gertatzen den bezala, haur edo nerabe batek galera esanguratsu baten aurrean dituen erreakzioak aldagai ugariaren pilaketaren baitan egongo dira: nerabearen garapen egoera, bere izaera, bere ingurunearen lehenaldia eta orainaldia (famiakoa, kulturala, azpikulturala, bere erreferentziatzeko taldea...) pertsona bezala garatzen ari den heinean galera, sufrimendua eta heriotzaren inguruan jaso dituen eta jasotzen ari den mezu inplizituak eta esplizituak.

Beste galera motak

Doluz hitz egiten dugunean heriotzaz eta bere inplikazio psikologikoaz gogoratu chi gara batez ere. Bi urte daramatzagu topaketa hauetan gai horiek nola landu hausnartzen, eta iaz San Telmo Museoan egindako maleta didaktikoa ere ikusi genuen.



Patxi IZAGIRRE

Psikoterapeuta eta Ekintza ikastolako psikologoa

Porrotaren eta nahi dugun hura lortu ezinak sortzen duen frustrazioaren ideia barneratu behar dugu

Aurten urrats bat gehiago emateko asmoa dut, eta horretarako, azken saioan beste galera motei nola heldu ikusiko dugu. Batez ere gurasoen banaketen eta horiek haurrengan duten inplikazioaren inguruan hausnartuko dugu. Dolu egoera batean lehen helburua bizitzari zentzu berri bat aurkitzea dela esaten dugu. Era berean, aitarekin edo amarekin banaka egoteak ere frustrazioa eta sufrimendua sor ditzake.

Kasu konkretuak aztertzea gustatuko litzaidake, modu horretan eguneroko jardunean topatzen ditugun zailtasunak bateratuz.

Porrotaren eta nahi dugun hura lortu ezinak sortzen duen frustrazioaren ideia barneratu behar dugu, nahiz eta gauzak ondo egin eta logikaz zoritxar batek ez zukeen gertatu behar. Bizitzak bi aurpegi ditu eta bakarrari so egiteak, politenari, gure orientazio zentzua atrofiatzen du minaren eta etsipenaren aurrean. Gure ikasleen galderei entzuten baldin badiegu eta bizitzan integratzen baldin baditugu, frustrazioei aurre egiteko prestatuko ditugu.

Esperientziak trukatzeko gogoz eta motibatuta dagoen taldearekin topo egitea espero dut denok aberas gaitezen. Talde dinamikak egingo ditugu bakoitzaren intimitatea osoki errespetatuz.



Eraman ezazu etxera



ipuin bilduma!

Goza ezazue zuen haurrekin batera Xalto ta Brinko pailazoen abenturez inguruko txoko, pertsonaia eta istorioak ezagutuz.



Berria!
Uztailen kalean!



Bilduma hiru urtetan zehar kaleratuko da, urtean lau ipuin, urtaro bakoitzean bat. Egin ezazue harpidetza ORAIN 36 eurogatik eta ipuinak zuen buzoietan jasoko dituzue

Harpidetza egiteko eta informazio gehiago jasotzeko:

KORRI, XALTO TA BRINKO PAILAZOAK
943 340 975 eta 646 329 441
korrixalto@euskalnet.net

Harpidetza osoa
(12 ipuin): 36 €
Sei ipuinak: 21 €

Matematikaren historia eta filosofia

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 1.4 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p>	9:00	9:00
<p>Matematikaren historia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Matematikaren historiaurrea. - Matematika antzinako kulturatan: Babilonia, Egipto, India, Txina eta Ertamerika - Matematika Grezian. - Matematika aro helenistikoan. - Matematika eta Islam. - Matematika berpizkunde garaian Europan. - Matematika aro modernoan. <p>Matematikaren filosofia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Matematika zientzia izan baino lehen. - Matematika naturaren hizkuntza bezala. - Matematika sistema axiomatiko-deduktibo bezala. - Matematika eta logizismoa. - Matematika XIX. mendeko krisia eta gero. 		
<p>* Jesus Mari GOÑI. EHUko irakaslea eta ikasliburu egilea.</p>		
		14:00 BAZKARIA



Matematikaren historia eta filosofia



Matematikaren historia eta filosofia.
Interdiziplinarietatea hobetzeko urratsa.

Eskolan erakusten diren gaiak sailkatze-ko unean ohikoa da "Letrak" eta "Zientziak" kategoriak erabiltzea. Sailkaketa horren ondorioa horren da sakona irakasleek beraiek beraien buruak atal bateko zein beste koren parte ikusten dituztela. Hamaika bider egokitu zait entzun behar izatea: "Aizu barkatu, ni letrasekoa naiz" Matematikarekin zerikusia zuen kuestioren bat atara bezain pronto. Adierazpen horren bidez giza-jakintza guztiz dauden isolaturik bi munduen artean banatu egiten dela dagoen uste hedatua bideratzen da.

Baina banaketa hau berria da, 200 urte baino gehiago ez ditu, eta zientzien kasuan arrazoi punturen bat du ere (XVII mendearen geroztik Zientziak hartzen duen bidea eta orduarte zuena guztiz bait dira desberdinak) Matematikaren kasuan ez du inolako zentzurik.

Ezagutza matematiko oinarrikoa oso da aintzinakoa eta azaldu zenetik oso gutxi (ia ezer) aldatu egin da. Baina ez hori bakarrik, ezagutza horren justifikazioa (teorizazioa) urte asko ditu. Matematika "maiuskularekin" sortu zutenak beraien burua filosofoztat (egiarene zaleak) zuten eta gaurko ikuspegitik begiraturaz "letrasekoak" ziren. Thale, Pitagora, Plato, Arsitotele, Euklide, Arkimede horra hor kultur grekoaren gailur ezagunenak. Den denak "matema-zaleak" ziren eta kasu askotan gaur erakusten ditugun ezagutzaren sortzaile zutenak. Baina ez da hor zerrenda bukatzen eta, ezazugenenak bakarrik aipatze arren, izen ospe-




Jesus Mari GOÑI
EHUko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

tsu gehiago aipatzea ez da zaila: Galileo, Descartes, Newton, Leibniz, Laplace, Zaila da oso Matematika ezagutzea nola sortu zen eta zein funtsa teorikoan oinarritzen den jakin gabe.

Gaur egun ohikoa da esatea Matematika- ren irakaskuntzaren helburu nagusia ikasleek problemak ebazteko duten gaitasuna garatzea dela. Baina esan ohi ez dena bide hori bera izan dela Matematikaren beraren garapenak bultzatu egin duena. Matematika garatu egin bada, neurri handi batean bederen, problemak ebazteko beharra eranginda izan da. Matematikaren historiak interesa du, ikuspegi horretatik begiraturaz, kultur desberdinetan izan dituzten problemen aurrean zer-nolako erantzunak aurkitu dituzten erakusten digutelako. Matematikaren historia, hortaz, garrantzitsua da gutxienez bi arrazoiengatik: a) Matematika bera, era esanguratsu batez, ikasteko asko lagun dezakeelako (dakiguna nondik datorren esaterakoan zein problemaren erantzuna den argituko digulako) eta ;b) giza-kulturaren barruan kokatzeko balio

duelako; hots; jakintza matematikoa kultur jakinen barruan eman egiten dela eta kultur molde horietatik kanpo ulertzea ezinezkoa dela ohartarazi egiten digulako. Gizarte jakin batek Matematikari buruz jakin duena ezagutu gabe nekez baieztatu daiteke bere kultur ondarea ezaguna zaigula. Matematikariak gizarte ondore kulturala zabaldu duten pertsonak dira eta, gorago esan dugun bezala, zaila da oso kultur bat ezagutzea pertsonai hauen aportazioak ezagutu gabe.

Matematikaren historia eta filosofia ezagutzea komenigarria da Matematika hobe erakusteko; baina ez horretarako bakarrik. Matematikaren historia eta filosofia ezagutzea komenigarria da filosofia eta historia bera hobe erakusteko. Matematikaren historia eta filosofiaz jardutea bilgune egokia izan daiteke bestela horren mundu isolatuetan bizi diren "letraseko- eta -zientzietako" irakasleentzat.



Gogo erabilketa

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.4 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <p>Gogo erabilketaren aurkezpena. Gogoratzea nola egiten da? Ariketak eta teoria.</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE. Baigorriko Biletxea kolegioan irakasle. Pariseko "Institut International de Gestion Mentale"ko Gestion Mentale Sailean diplomatua.</p>	<p>9:00</p> <p>Ohartzea eta memorizatzea nola garatu?</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE.</p>	<p>9:00</p> <p>Ulertzea, gogoetatzea eta irudikatzea.</p> <p>* Mikel ERRAMOUSPE.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Gogo erabilketa

Gogo erabilketa: ikasteko gogo-aren pizteko .

Irakasle guziek badakite zoin neke den gela batean ikasle guziek denbora berean gauza bera ikastea. Batzuek aise ulertzen dute, beste batzuek baietz ulertu dutela esan arren, zer ulertzen dute? Azken batzuek ez dutela deus ulertzen erakusten dute. A zer komedia! Alta, badakigu gure ikasleak ez direla tontoak. Gai batean gaizki ibilirik ere, ez dira azkenak eskulatan adibidez, edo kiroletan. Haur bakoitzak zerbait lortzen du. Zerbait badaki egiten. Baina gure eskoletan ez direlako ondo ibiltzen, edo porrotean daudelako, hor daude irakasleak hauekin zer egin jakin ezinik.

Ni ere hontan nengoen duela zenbait urtera arte, **gogo erabilketa** pedagogia ezagutu arte. Hortarik goiti ez ditut ikasleak begi berekin ikusten eta pedagogia horrek ene irakasteko gogo berpiztu dela aitortzen dut. Porrota ez da fatalismo bat, ez da ezinbertzekoa. Mirakuilurik ez bada egiten ere, konturatzen gara ikasle bakoitzak bere gogoaren berri jakinez berriz ikasteko gogo eta plazera biltzen ahal duela. Horrek erran nahi du gu bakoitzaren gogo nola erabil dela giltza.

Gogo erabilketaren sortzaile **Antonie de La Ganderie** frantses filosofoa

Antonie de La Ganderiek ongi daki zertan ari den. Ikasteko zailtasunak berak bizi izan baititu haurra zenean. Kolegioko eta lizeoko urte anitz errepikatu zituen norbait entzumen arazo bat zuela konturatu arte. Orduan, bere irakasleek bere gortasuna kontuan harturik, idatzizko dokumentuak eman zizkieten, eta Biolo-



Mikel ERRAMOUSPE
Baigorriko Biletxea kolegioko irakaslea
Pariseko "Institut International de
Gestion Mentale"an diplomatu

giako eta Filosofiako goi mailako ikasketak egin zituen. Bere haur denborako zailtasunak gogoan, ikerketa sakonak egin zituen jakiteko zergatik batzuek ondo ikasten duten eta beste batzuek ez. Batzuek jitea dutelako eta besteek ez? Batzuek alferrak direlako eta besteak langileak? Alferrikako arrazoiak horiek denak!

Antonie de La Ganderie iduritu zaio badela beste arrazoirik: batzuek beren gogo behar bezala erabiltzen dutela eta beste batzuek gaizki. Erabiltze hori deskriba eta irakats daitekeela iruditu zitzaion eta ikastearen oinarriko lege batzuk azaldu ditu. Horiek dira **gestion mentale** edo **gogo erabilketaren** izenburuarekin aipagai direnak eta irakasleen prestakuntzarako azaltzen direnak.

Gogo erabilketaren lehen legea mentalizatzea edo gogo-raztea

Gogo erabilketak pedagogiari hiru aldian ematen dizkio oso bereziak: mezua (ikasgaiaren) hartzea, gogoratzea eta azkenik, berriz mezua ematea.

Hartzea edo pertzepzioa gorputzeko

bost zentzuen bitartez egiten da: begiek ikusiz, belarriek entzunez, ahoak dastatuz, sudurrak usainduz, gorputzak ukituz, haztatuz...

Gogoratzea, aldiz, berak dioen bezala, gorputzeko bost zentzuek gogo-rat ekartzten dute pixkanaka eta gogoan biziartzen dute. Lan hori kontzientzia osoan egiten da gai mental bat bilakatu arte. Gogoratzea, pertzepzioaz aparte egiten da. Adibidez, nire begien bistan dudana etxeko gogoan ematen dudalarik, begiak itxita ere hor dago bizirik nire gogoan. Erran daiteke norberak bere-gana-tzen duela.

Pedagogia horren berezitasuna hor da: bakoitzaren gogo lanean harraraztea eta horren garatzea. Hala nola, arretaren garatzeko eta baita ere memorizatzea nola egin ikasteko. Horrekin batera lantzen dira gogoetatzea eta ulertzea. Quebecen asko garatu den gogo erabilketa hori deitzen dut **orthopedagogia**, erran nahi baitu zuzen ikastea.

Teoria eta praktika eskuz esku

Ikastaldi denboran teoria eginen da, baina denbora gehiena pasatuko dugu ariketak egiten irakasle bakoitza konturatu dadin berak nola erabiltzen duen bere gogo zerbaiten ikasteko edo buru lan bat egiteko.

Ikastaldi honetan irakasleek beraiek asmatuko dituzten beren ikasleekin erabiltzen ahal dituzten ikasgai praktikoko batzuk.

Beraz, pedagogian interesa duenak aurkituko du gogo erabilketan bere irakaskuntzaren berritzeko bai edukia eta bai gogo.

Historiaren txokoa

Koordinatzailea: Mertxe Urteaga

Lekua: **Ekintza ikastola**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>9.00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia 9:30</p> <p>- Historiaurreko tailua</p> <ul style="list-style-type: none"> - Behe Paleolitoa - Erdi Paleolitoa eta Goi Paleolitoa - Paleolito ondorengo tailua <p>- Parte-hartzaileen esperimentazioa</p> <p>* Fran ZUMALABE. Historiaurrelaria eta arkeologoa. * Mertxe URKIOLA. Historian lizentziatua eta Ekintza ikastolako irakaslea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sua - Kolpaketa - Igurzketa <p>- Parte-hartzaileen esperimentazioa</p> <p>* Fran ZUMALABE. * Mertxe URKIOLA.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tiraketa esperientziak - Arkuak prestatu eta gezi eta azagaien tiraketa egin. - Hezur tailua (ahal izanez gero) <p>* Fran ZUMALABE. * Mertxe URKIOLA.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Historiaren txokoa: arkeologia eta historiaurrea bideetan



Askotan entzun behar izaten ditugu Historiako irakasleek gure irakaskaiaren inguruan abstraktua, teorikoa, umutikoa eta antzerako loreak eta hor ibiltzen gara baliabide didaktikoen bila irakaskai ulergarriagoa, gertukoa, konkretua, erakargarria eta abar izan dadin ahaleginetan. Askotan zaila izaten da eraginkortasuna, plangintza zabalak, prozedurak eta gogoan eduki beharreko bestelako ezaugarriak gaiari eskaintzen zaion eskolako denbora laburrean uztartzea, ahaztu gabe, beti ere, Giza Zientzietako arloaren barruan ari garela eta honek, historiari gain, beste esparru batzuk lantzeko aukera edo beharra eskaintzen duela.

Ikastaro honetan, Historiaren irakaskuntzaren baliabide didaktiko moten artean esperimentazioa eta ikaslearen jarrera aktiboa eta ikertzailea lantzeko aukera ematen duen proposamen zehatza eskaini nahi dugu. Hain zuzen, Arkeologiaren eskutik Historiaurreko gaiarekin bat egingo dugu eta garai haietako gizakiek bere eguneroko bizimodurako sortzen zituzten tresnak aztertuko ditugu. Ikasliburu guztietako irudietan ikusten ditugun harrizko, egurrezko edo hezurrezko tresnak bereizi eta haien erabilera zehatza esperimentatuko dugu. Horretarako, garai desberdinetako tresnen ezaugarriak, lehengaiak eta erakuntza teknikak aztertuko dira. Eta aipatu esperimentazioari erantzunez, ikastaroko



Fran ZUMALABE
Historiaurrelaria eta arkeologoa

partaideek Paleolitoko teknikak aplikatuz tresnak sortuko dituzte ondoren, eta ahal den neurrian, haien erabilera frogatuz.

Garaiko egoeran kokatzen lagunduko diguten oinarriko azalpen teorikoez gain, ikastarora hiru atal praktikoa nagusitan banatuko da:

Tailua: Aro Paleolitoko garai desberdinetan, eta ondoren, garatzen den tailuaren eboluzioa, lehengaiak eta tresnak aztertuko dira eta haiekin esperimentatuko da.

Sua: sua egiteko antzinako teknikak eta lehengaiak aurkeztuko dira eta haiekin esperimentatuz Historiaurreko teknikez sua pizten saiatuko gara.

Tiraketa: arkuak egingo dira eta, haiek erabiliz, gezi eta azagaien jaurtiketarekin esperimentatuko da.

Bide batez, "Historiaren txokoa" izenpean aurkeztzen den ikastaro hau, Hik Hasiko Udako Topaketetan Historiari eskaintzen zaion lehen topalekua izanik, arlo honetan irakasten saiatzen garen irakasle onen artean



Mertxe URKIOLA
Historian lizentziatua eta Ekintza ikastolako irakaslea

esperientziak trukatzeko, kezak bideratzeko, zailtasunen inguruan elkarrikeria sortzeko eta informazio trukea bideratzeko aukera ezin hobea izango da.



Argazkia: Arkeolan Ikerketa Zentroa.

Artearen txokoa: Oteitza

Artearen txokoa:
Oteitza

Koordinatzailea: Josu Txapartegi

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.2 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <ul style="list-style-type: none">- Jorge Oteitzaren esperientzi estetikoaren hezkuntza- Oinarri teorikoak Oteitzaren obra eta pentsamenduan zehar- Funtz teorikoak hezkuntzan- Jorge Oteitzaren hezkuntza esperientziak- Ondorio gisa- Bibliografia <p>* Jaione APALATEGI. Jorge Oteitza Fundazio-Museoko kidea. NUPeko irakaslea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none">- Jorge Oteitza, nazioarteko abangoardia artistikoaren paradigma. Ezaugarriak.- Oteitzaren lan esperimentalaren ibilbidea. Arrazoiak.- Praktikarantz. Oteitzaren lan egiteko erara hurbiltzen. <p>* Pilar DEL VALLE DE LERSUNDI. Artearen Historialaria. Jorge Oteitza Fundazio-Museoko kontserbatzailea.</p>	<p>9:00</p> <ul style="list-style-type: none">- Aplikazio praktikokoak <p>* Pako SERRAS. Zarauzko ikastolako irakaslea.</p> <p>* IKERTZE elkarte. Donostia.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Jorge Oteizaren erantzukizuna hezkuntzarekin



Oteizaren ikerlanetan etengabe agertzen diren zenbait kontzeptuen zehaztasun terminologikoak (estetika, esperientzia estetikoak; lengoia artifizialak eta lengoia naturalak; komunikazioa; arau estetikoak eta sortuntza arauak; estetika funtzionala, aldaketaren legea, partaidea; eta abar) ezinbestekoak dira ulertzeko nolako ekarpenak ondoriozta daitezkeen Oteizaren lanetatik hezkuntza, haurra eta hezitzailea delakoari begira.

Oteizaren esperientzia estetikoak, garaien araberako helmuga berri bat izanen da, eta gure kasuan, hiru errealitate horiek garatu behar dituen misio bereziaren baitan, betiere.

Oteitzak dio, eskola leku dogmatiko bat bezala agertzen dela gehienetan eta ez esperimentatzeko eta sortzeko leku bezala. Ondorioz, oso kezkatuta agertzen da, bertatik irteten diren belaunaldiengan nabari duen energia faltagatik eta gizartea biziberritzeko duten ahuldadeagatik.

Baieztapen hauek, gehienetan, gizartearen estamentu desberdinetatik garatu nahi diren norabideen aurka jartzera eraman dute Oteitza, Hezkuntza eremua horietako bat izanik.

Oteitzak bere burua konstruktibistatzat dauka, eta fede handia du European bere garaian gertatu zen eskolagintzaren leherketaren fenomenoagatik, uste baitzuen bere



Jaione APALATEGI
Jorge Oteitza Fundazio-Museoko kidea
NUPeko irakaslea

bitartez heda zitekeen hezkuntzak gizarte berri bat eraikitzeko ahalmena izan zezakela. Baina honetarako, ezinbestekoa izango zen irakaslearen heziketa estetikoaz arduratzea.

Bestalde, gogoratuko dugu, Jorge Oteitzak jorratzen duen “Estetika Funtzionala” deiturikoa, Estetika Linguistikoaren ikuspegi Holistiko bat dela. Holistika hau, Jan Christian Smuts-ek (1870-1950) ulertzen duen antzera erabiliko du, hots: aztertutako prozesuaren sintesi sortzaile bezala, eta haren helburua gizataldeek dituzten arazoak ebazteko baliagarria izatea da. Hemen hezkuntzak euskara bere jatorritik erreku-peratzeko ezinbestekoak diren ibilbideak ekarriko ditugu gogora.

Honi guztiari erantzuteko artean oinarritutako Aldaketaren Legea aplikatzeko saia-kerak eskainiko du.

Ariketa praktikoa: Jorge Oteitzak bere garaian egin zituen proposamenak gaurko egoerarekin alderatzea izango da.



Jorge Oteitza eskultorea: bilakaera eta bere proposamenak

Oteitzak, artea, lehenik eta behin, bere burua ulertzeko erabiltzen du. Aldi berean, errealitatearekin erlazioatzeko eta bereziki, eskulturaren bitartez bere herriari eta garaia-ri dagokion jokabide estetikoak ikertzen du, euskal pizkunderako baliagarriak izan daitezken aurkuntzak eskainiz. Jokabide hau, Errusiar Konstruktibisten antzera, iraultzan oinarritzen da, non artistek beren ikerketa estetikoak gizartearen alor desberdinen zerbitzura jarri zituzten: zinean, diseinuan, janzkeran, antzerkian, industrian, hezkuntzan eta abar.

Oteitza, euskal historiaurrean murgiltzen da, benetako kulturaren sustraien bila, modernitatea adierazteko balio dutenak. Bere eskulturan aurkitzen duen "hutsa", antzinako euskal kulturaren ere agertzen dela dio. Eta estetikaren alorretik, euskal hizkuntza ere ikertzen du. Eskultura hizkeraren bitartez lortzen dituen ondorioak, beste hizkera batzuetan aplikatzeko baliagarriak direla eusten du, hots: hezkuntzan. Horrela, bere obraren formulazioaren abiabuntutik sortzen duen Aldaketetarako Legeak, mundu zabaleko artearen historia, kulturaren prozesuak eta hezkuntza bera ulertzeko balioko du.

Oteitzak "hutsa" esperimentatzera sentibiltatzen gaitu. "Hutsa" hori ez da leize bat, ekintzarako prestatzen gaituen geruza bat baizik. Haseran, "hutsa", sakratua eta espirituala da, ondoren mundu profanora pasa behar da, baliagarria bihurtu eta mate-



Pilar DEL VALLE DE LERSUNDI


Artearen historialaria
Jorge Oteitza Fundazio-Museoko
kontserbatzailea

rializatu egin behar da, gizaki berri bat sortaraziz.


Diogun hau azaltzeko, hau da, Jorge Oteitzaren obra eta pentsamendua ulertzeko, garatu zituen urratsak agertuko ditugu: bere haurtzaroko esperientzia estetikoak; erligio-krisia eta artista izateko erabakia; euskal gizartearen berpizkunderako konpromisoa aurrekolonbiar megalitika eta arte garaikidearen ikerketetan oinarrituz; zientzia eta filosofia erabiliz, izaki estetikoaren formulazio bat aurkitzea; zientziak materia eta energiari buruz diona berak eskulturaren esperimentazioaren bitartez aurkitzen du, hizkera-esperimentalen konbinaketa eta kontrolerako funtsezko unitateak definitzen ditu, "hutsa" harkor batera iritsi arte.

Gure saioari praktikotasuna emateko, Jorge Oteitzaren esperientzia estetikoak guregan sentiarazteko balioko diguten ariketa batzuk egingo ditugu.


Eskultura hizkeraren bitartez lortzen dituen ondorioak, beste hizkera batzuetan aplikatzeko baliagarriak direla eusten du, hots: hezkuntzan. Horrela, bere obraren formulazioaren abiabuntutik sortzen duen Aldaketetarako Legeak, besteak beste, hezkuntza bera ulertzeko balioko du.



Zer dakit nik?



nikdakurt



eskuliburua

laister
testu liburuak
LH eta
batxilerretarako

ateak zabalik



dakit
argitaldaria

informazio gehiago: dakit@airtel.net

Baratze ekologikoa

Lekua: **Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza Eskola**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
9:00 Dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia Jarraian:	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none">- Eskola Baratze Ekologikoa, Ingurumen Hezkuntzarako baliabidea- Baratzearen antolaketarako faktoreak- Lurzorua, izaki bizia- Ongarritapen ekologikoa: konposta- Laboreen elkartek eta errotazioak- Izurrite eta gaixotasunen aurkako borroka biologikoa- Baratzearen erabilpen didaktikoa: ikastetxe baten esperientzia		
<p>* BIOLUR Gipuzkoa. Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartea * CEIDA Gipuzkoa. Ingurumenarekiko Irakasbideen H ezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia. * Zumaia Institutuko baratzeako irakasle arduradunak.</p>		
14:00 BAZKARIA		



Eskola baratze ekologikoa



Ikastaro honen bitartez Baratze Ekologikoa ikastetxean martxan jartzeko oinarritzko ezagupenak azalduko dira, beti ere erarik praktikoenean, saio batzuk baratzean bertan aurrera eramanez eta ikastetxe bateko esperientzia ezagutuz.



Edurne HUESA
CEIDAKo aholkularia

Lehendabizi Eskola Baratze Ekologikoa ikastetxean martxan jartzeko arrazoiak aztertuko ditugu. Baratze Ekologikoa Ingurumen Hezkuntza garatzeko baliabide bikaina da zalantzarik gabe, ikastetxeak ikasleei euren natur inguruneari buruzko esperientzia ugari bizitzen laguntzen dielako, ingurunearekin ditugun harremanak eta menpekotasunak ulertzeko, eta baita Baratze Ekologikoa ingurumenaren aldeko ekintza aparta delako.

Eskola Baratze Ekologikoa ardatz harturik, zenbait gai landu daitezke ikastetxe batean, hala nola, kontsumoa, elikadura, hondakinak eta birziklapena, osasuna eta herrien garapena. Balioak ere lantzen ditugu, besteak beste: bizitzeko era guztiak estimatzea, beste pertsonetikiko eta Lurrarekiko zuzentasuna eta elkartsuna, eta baita elkarbizitza, autonomia eta lan-kidetza.

Baratze ekologikoaren bidez luraren bizitza eta emankortasuna babestu eta ugaltzen da eta ekosistemaren oreka errespetatzen da, airean, lurrian eta uretan ez da kutsadurarik sortzen, eta sortzen diren elikagaiek kalitate nutritibo egokia eta berezko konposizio orekatua gordetzen dute. Nekazaritza Ekologikoaren ezaugarriak ezagutzeaz gain, ohiko nekazaritza eta nekazaritza integratuaren ezaugarriekin konparatuko ditugu. Horrela, gure kontsumorako ereduak gure osasunean eta

ingurumenean ditzuten elkarreraginak ere ikusiko ditugu.

Hiru egunetan Baratze Ekologikoa martxan jartzeko alderdi garrantzitsuenak aztertuko dira:

- Orientazioa eta klima
- Lurzoruaren garrantzia eta bere ezaugarriak: saiakera praktikoaren bidez.
- Ongarritapena konpostaren bidez: konposta egiteko jarraitu beharreko pausoak eta konpostaren garrantzia lurzorurantz.

- Laboreen babesa, laboreen elkarrean eta errotazioen bidez

- Lan egiteko tresnak eta lan egiteko erak: Baratze Ekologikoan lurzorua babestea oinarritzkoa denez, tresna gutxi batzuekin lan egin dezakegu.

- Izurrite eta gaixotasunen aurkako borroka biologikoa: fauna mesedegarria eta baratze batego landaredia ezagutuko ditugu, baita Eskola Baratze Ekologikoan beharrezkoak izan daitezkeen tratamenduak ere.

Baratzearen erabilpen didaktikoari buruz, ikastetxeetan gaur egun garatzen diren hainbat antolaketa aukera aztertuko dira: tailerra, inguruneko ikasgaiko jarduera, diziplinarteko gune tematikoa... eta horien abantailak eta desabantailak. Zumaia Institutuko Baratze irakasle arduradunek beraien esperientzia ere azalduko dute.

Azpimarragarria da ikastaro honetan CEIDAKo teknikari eta ikastetxeko irakasleez gain, BIOLURreko teknikari eta nekazariak ere parte hartuko dutela, gaur egun gure artean Nekazaritza Ekologikoa errealitatea bihurtu dela baieztatuz.



Irakaslearen rol aldaketa

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.1 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
<p>8:30 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:</p> <p>Cure lanaren hiru kontestuak. Bigarren zirkuitu komunikatiboa. Teknikoa: Burnout sindromea. Talde operatiboak/Formazioa: lan taldearen ezaugarriak.</p> <p>* IZARTXULOK taldea.</p>	<p>9:00</p> <p>- Antsietatea kudeatzeko hainbat jarrera. Antsietate defentsiboa (naturalizatu, areagotu, saihestu) <i>versus</i> Antsietate seinalea (elaboratu). Impasse egoerak // "posiblea denaren artea" Narzisismoa // autoestimua. Antsietate nahasmengarria, jazarpeneko, depresiboa eta erreparatorioa.</p> <p>* IZARTXULOK taldea.</p>	<p>9:00</p> <p>- Rola berrian kokatzeko erreferenteak. Sintoman oinarrituriko ereduak <i>versus</i> subjektuaren osotasunean eta harremanetan oinarritutakoak. Aprendizaia programetan oinarritzen diren teoria ebolutiboak <i>versus</i> loturan eta harremanean oinarritzen diren garapen prozesuak. Arauetatik eta errezetatik egindako esku-harmena <i>versus</i> prestakuntzatik, subjektibitateatik eta inplikaziotik egindako esku-harmena. Arbitrarrietatean eta uniformizazioan oinarritutako ereduak <i>versus</i> baliabidetan/mugetan, mutualitatean eta aniztasunean oinarritutakoak.</p> <p>* IZARTXULOK taldea.</p> <p>14:00 BAZKARIA</p>



Gaurko eskola sistema eta irakaslearen rol aldaketa

Objektua egin izan banindute objektiboa izango nintzatekeen, baina subjektua egin ninduten.

Jose Bergamin

Irakaskuntzan edozein proiektu bere konplexutasunean aurrera eramateko talde lana, taldeen sormena, ezinbestekoa da. Baina horretarako eta lehenago, subjektu bakoitzaren sormena, norberaren lan pertsonala ezinbestekoa da gero taldea eduki funtzionalez hornitzeko. Talde operatiboak (zeregin baten inguruan sortzen direnak) osatzen duten subjektuen ekarpenetan oinarritu behar dira: taldeak, taldea izategatik soilik ez du ezer eraikitzen, nahiz eta gero, norberak ekartzen diona gainditu eta hedatu. Hau da bere balioa: taldea subjektuen parte-hartze aktibotik jaiotzen da eta ondoren hazi egiten da guztion probetxurako. Baina ekarpenik egiten ez duenak ezin izango du ezer jaso, ez baitu bere egin proiektu komunitarioa.

Horregatik uste dugu ikasgai magistralek ez dutela balio: norberaren ekimena, gozamina, sormena, eraikitze aukera eta ahalmenak ezabatzen dituztelako. Baita lanaren gogobetetzea eta plazera. Sorpresek teknikoaren zalantza baretzen dute, baina azken finean, pentsamendu mekaniko eta metodologikoa da bultzatzen dena eta hortaz, errezeta sinplifikagarriak eta itxiak, esku-hartze zurruna, analisiaren falta eta egoera berriei erantzun eza sortzen da. Hori ez da zientzia ikasteko modua, erantzun berriak bilatzeko bidea itxita geratzen bai-

IZARTXULOK taldea

ta, eta zientzia galderen aurrean hazten da. Gu giza zientziaren osagarriak eta sortzailak gara egunero errealitatearen, benetako errealitatearen aurrean kokatuta eta murgilduta gaudelako. Ikastetxe bakoitza, maisumaistra bakoitza mugimendu horren partaide, protagonista eta etekina da, eta horretarako gure analisi eta esku-hartze estilo propioa garatu behar dugu.

Eta horretan datza lanaren gozamina eta plazerra: gure bilaketak ematen digun gogobetetzea eta zerbait propioa eraikitzen ari garenen ziurtasuna. Testu berri batek beti gure mugen aurrean jarriko gaitu, baina lantzeak, borrokatzeak, kontzeptu bat ulertu eta kokatu dugula jakiteak eta batzuetan zailak diren bideak jorratzeak merezi duela erakusten digu. Gauza berbera eguneroko lanarekin. Are gehiago ikasi eta ulertu dugun hori gure eguneroko praktikan onartzen dugula ohartzen garenean, eta gainera, gure praktika horren aurrean lasaiago eta operatiboago egoteko balio digunean.

Gure proposamena:

1. Harreman pedagogikoa aztertze gune bat sortzea:

1. 2. Zirkuitu komunikatiboa.

2. Interakzio eta harreman pedagogikorekiko estrategiak bilatzea, aztertzea eta baliozkotzea eskolako praktikan operatiboak izan daitezten.

3. Aniztasunaren ikuspuntutik, taldetan

sortzen diren hainbat arazo eta egoera gatazkatsuri irtenbideak bilatzea.

Edukiak

- Nola definitu testuinguru egokiak?
- Nola egituratu eta zehaztu testuingurua?
- Nola eragotzi testuinguruen nahasketa?
- Nola bereiztu zein diren esku-hartze egokiak?
- Nola kokatu behaketarako jarrera egokian?

* **Mobilizaziotik partaidetzara:** esku-harmen guztiek bere balioa dute modu egokian kokatuak/ulertuak baldin badira. Taldean ez daude batzuk liluratzeko eta beste batzuk liluratuak izateko, batzuek hitz egiteko eta besteak entzuteko.

* **Diferentzia kontuan hartu:** norberak duen onena eskain dezake, norberak ikusten duen moduan azaldu behar du, norberak markatzen duen eritimoarekin. Ez gara ez-berdingabetasunaz oinarritzen: denok abiadura berdina...

* **Mutualitatea:** bestea ikustea/onartzea. Subjektuen arteko aliantzak sortzeko beharrezkoak diren ezaugarriak kontuan hartu eta praktikan jarri, eta ez norgehiagokan ibili lekua konkistatzeko.

* **Desnaturalizatzea:** bigarren adierazlea agerraraztea. Gauzak ez dira diruditen bezalakoak eta gure lanean naturalizatze jarrera ugari aurkitzen dugu. Naturalizatzek antzietatea gutxitzen du, baina ez du subjektuaren edo taldearen arazoa konpontzen.

Euskal kultura tradizionala

Lekua: **Pedagogia Fakultateko 2.7 gela**

Uztailak 1	Uztailak 2	Uztailak 3
8:00 Dokumentazioaren banaketa 9:00 Sarrera ekitaldia Jarraian:	9:00	9:00
<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen kokapena hizkuntz aniztasunaren historian eta hari buruzko azken teoriak. - Hizkuntzaren iraupena historian zehar. - Etxea: gizarte antolaketa muina, etxaldea, eginkizunak, maiorazgoa, euskal zuzenbidean barnean, deiturak. Etxe egituraren ondorioak Euskarari. - Bizitzaren pasarteak ospatzeko erritoak: jaiotza, gaztaroa, ezkontza eta heriotza. - Denboraren neurria: urtea, urtaroak, hilabeteak eta egunak. Haiei loturiko erritoak. - Ahozko literatura: berdintasunak/ezberdintasunak eta abantailak/desabantailak literatura idatziarekin. - Ahozko literatura... literatura? Bere funtzioak gizartean. - Mundu magikoa: animismoa, erritoak, sinesmenak. - Mitologia: izaki mitologikoak, sinesmenak, naturarekiko harremanak - Dantza eta festa tradizionalen mundua: bakarrik denborapasa gizartean? - Dantzak eta inauteriak: mundu sinbolikoa gizarte beldurrak uxatzeko - Herri kirolak... kirolak? - Ikusitakoaren ondorioak eta balizko aplikazioak irakaskuntzan. - Irakaskuntzaren mugak hizkuntz transmisioan eta motibazioak pizterakoan edota mantentzerakoan. 		
* Xamar. Irakaslea eta dibulgazio liburuen egilea.		14:00 BAZKARIA



Euskal kultura tradizionalaren inguruan

Ikastaro labur honetan, euskal kulturari buruzko aski zabaldurik dauden topiko tipiko zenbait deuseztuko ditugu. Hori da, bederen, helburua.

Gutxitua dagoen zernahi gizarteak beti barneratzen du, lehenago edo berantago, kultura eta gizarte menperatzailearen balio eta aurreiritzi oro, horiek “normalak” direla pentsatuz. Gisa honetan, azpiratutako gizarteak bere buruari buruz –bere kulturari buruz, alegia– lortzen duen pertzepzioa kultura nagusiaren aurreiritzietan oinarrituta dago. Honek sortzen duen gutxiagotasun konplexua lehenbiziko urratsa da jatorrizko kulturaren balio guziak bazterzeko, “zaharrak” edo “modaz kanpokoak” direlako. Agerian denez, muturreko kasuetan, kultura horren oinarria den mintzoa ere desagertzen da, jadanik “bizi modernorako balio ez duelakoz”.

Azaldu dugun prozesua ber-bera da gaur egun mundu guzian, bai eta normaldutako hizkuntzetako kasuetan ere. Frantses edo espainol kulturen, adibidez, anglosaxoi –yanki– erduetako morrontza gero eta nabarmenagoa da.

Aipatutako guziak eragin zuzena dauka, jakina, (zernahi) hizkuntzari eusteko, atxikitzeko behar den motibazioan. Are gehiago, era diglosikoan, ez normaldua dagoen batean, alegia.

Bizi garen egoeraren ez ikusiarena egiteko joera nabarmena da gutartean, alegia, normalak bagina bezala aritzeko. Hau askoz nabarmenagoa da irakaskuntza munduan, alta irakasleria bizi den azpiratutako gizartearen parte da, indarrean dauden aurreiri-



Xamar

Irakaslea eta dibulgazio liburuen egilea

tzi, topiko eta lelo guziak barneraturik dituen gehienetan.

Ikusi nahi ala ez, onartu ala ez, euskal kulturari buruz –oro har– dugun ezagutza aski eskasa da eta, gehienetan, gutxi hori topiko tipikoetatik ez da ateratzen, ahalkez betetakoa ez delarik. Bistan denez, lanean ari diren irakasle askok ez du bere garaian behar den (in)formazioa izan, bertze gauzen artean, ia ez delakoz izan plangintza serio bat gure kultura serioa erakusteko, ez eta horretaz arituko diren irakasleei ere.

Honengatik guziagatik, ikastarotxo honetan gure jatorrizko kulturaren oinarrizko ideia batzuk ditugu aztertuko eta landuko, norberaren ezagutzatik hasita, ondorio –askotan– berrietara iristeko, ikuspegi berritua eta motibatzailea barneratzeko asmoz.

Hori lortzeko, hasteko, zertan dagoen gaur egun Euskarari buruzko jakintza ikusiko dugu, nondik heldu den (nonbaitetik etorri bada), zergatik iraun duen, funtsean, zer dagoen gaiaren inguruan.

Gizarte antolakuntzan oinarri den etxe

tradizionala aztertuko dugu, eginkizunak eta beharrak, dituen ondorio guziekin: mintzairan, gizartean, zuzenbidean... mundu ikuskera propioan.

Bizitzaren aroak, denborarenak eta personalak, nola neurtu eta bizitu diren ikusiko ditugu, hala nola haiei loturiko erritoak ere.

Ahozko literaturaren inguruan gogoeta egingen dugu; literatura honen edukiez baino, gizartean zituen funtzioei buruz arituko gara, gaur egungo egoerarekin konparatuz.

Mitologia eta magia munduaz ere arituko gara: sinismenak, erritoak...

Festa tradizionalen funtzioei buruzko azterketa txikia egingen dugu, hala nola dantza munduaz, ihauteriaz eta kirolaz ere, denborapasa baino haratago zer den ikusteko edo, bederen, susmatzeko.

Finitzeko, ondorioak aterako ditugu, kultura tradizionalari buruzko ikuspegi berritua lortu dugun ala ez ikusteko. Ondoren, honek guziak irakaskuntzan izan lezakeen aplikazioaz mintzatuko gara, bereziki hizkuntzarekiko motibazioan eragiteko.



